



Lauaizeta Ikastola BHIko Ikasturteko plana 2016-2017

1-SARRERA

2. HELBURUAK

3. IRAKASKUNTZA JARDUERA PROGRAMA

4. ESKOLAZ KANPOKO JARDUEREN PROGRAMA

5. IKASTETXEKO ZERBITZUAK

6. KUDEAKETA EKONOMIKOA

7. HEZKUNTZA-KOMUNITATEARI INFORMAZIOA HELARAZTEKO PLANA

8. IUPren GARAPENAREN ETA IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDUAREN JARRAIPENA.

9. ERANSKINAK

1. Bidelagun
2. HBSP
3. Tutoretza plana
4. Agenda 21
5. Hezkidetza plana
6. Proiektu europearrak
7. Sare Hezkuntza
8. HNP
9. Ekonomia kudeaketarako plana

1- SARRERA

1.1.-TESTUINGURUA

Lauaizeta Ikastola orain dela 20 ikasturte sortu zen, DBH ezarri zenean, DBH ikastetxe independente moduan. Aitor Ikastola, Intxaurren Ikastola eta Intxaurren Hegoa Ikastetxeetatik jasotzen ditu ikasleak ia guztiak. Hori dela eta, elkarrekin lanean aritzea da ezinbesteko erronka. Ikasturte honetan 46 irakasle eta 330 ikasle gara.

Hiru ikastetxeetako ia ikasle guztiak etortzen direnez gurera, beraien ezagutza sakon edukitzeko aukera dugu, beharrei behar den bezala erantzuteko, jatorrizko ikastetxeekin harremanetan gaudelako.

Ikasturte honetako zuzendaritza taldeak 3. ikasturtea emango dute eta diseinatutako proiektuarekin aurrera doaz:

Zuzendaria:M^a Eugenia Lozano

Ikasketa burua: Nerea Frías

Idazkaria: Idoya Bernabeu

1.2.-PLANA EGITEKO PROZEDURA ETA METODOLOGIA

2016-17 ikasturteko plana antolatzerakoan batetik, iazko ikasturteko memoria eta bestetik zuzendaritza proiektuan proposatutako helburuak eta ikuskaritzatik proposatutako hobekuntzak izan ditugu kontuan. Bertan ebaluazio desberdinek emandako datuak kontuan izan dira, besteak beste, ikastetxe barneko datuak, emaitza akademikoak, ebaluazio diagnostikoa eta hobekuntza plana.

Hezkuntza-komunitatearen ekarpenak kontutan izan dira plana diseinatzerakoan:

- **Sibila guraso elkartek** proposamen desberdinak eginez.
- **Klaustroa** hainbat gai landuz eta erabakiak hartuz.
- **Ikasleek** beren ordezkarien bitartez.
- **Mintegi** desberdinek mintegi buruak izendatu eta jarduera, irteera eta ekintza desberdinak proposatuz.
- **Batzorde pedagogikoak** hainbat gai buruz eztabaidatu eta erabakiak hartuz.
- **Mailako irakasleak** proiektuak landuz.
- **Jantokiko arduradunak** zerbitzu hau antolatuz.
- **Mediatekako arduradunak** mediateka martxan jarritz.
- **Auzoetako eragileek ere** proposamenak egin dituzte: Intxaurren Kultur Etxea, Plazara Bagoaz, Ttan Ttakun, Gazte Lokalak...
- **Erakunde eta enpresa** desberdinak eskolaz kanpoko ekintzak, jarduera bereziak eta formazioa eskainiz.
- **Zuzendaritzak** koordinazio eta erredakzio lanak batetik eta eskolaz kanpoko ekintzen antolaketa bestetik.

1.HELBURUA: Dugun oinarrizko dokumentazioa eguneratu:				
JARDUERAK	ARDURADUNAK	TENPORALIZAZIOA	BALIABIDEAK	LORPEN ADIERAZLEAK
Elkarbizitza Planaren barruan Hezkidetzaren proiektuaren lehen hastapenak sartzea.	Mintegiak. Zuzendaritza. Ikasleen ordezkariak Sibilia guraso elkarteak	2. eta 3. hiru-hilabeteak	Horretarako dauden gidak erabiliko ditugu.	- Ikastolako diagnostikoa egina - Helburuak finkatuta izatea..
AIA dokumentua errebisatzea eta ikasturte hauetan guztietan osatu ditugun hainbat arau errebisatzea.	Elkarbizitza Batzordea. Zuzendaritza.	1. hiruhilabetea	AIA eta ikasle eta gurasoentzako gidak.	AIA aldaketekin web orrian txertatzea..
Elkarbizitza hobetzeko estrategia berriak sustatzea: <ul style="list-style-type: none"> • GOLDEN 5 programan irakasleri osoa sartu. • Aurreko ikasturtean hasitako HAUR BABESERAKO DETEKZIO GOIZTIARRAren bidetik jarraitzea. 	Ikasketa burua Orientatzailea Aniztasun Batzordea	- Ikasturtean zehar Aniztasun Batzordeko bileretan astean behin. - Formakuntzan asteazkenetan hilean behin.	Berritzeguneko Golden 5 mintegia. Elkarbizitza plana.	-GOLDEN 5 praktikan jartzeko, Ikasleen jarraipena egiteko egunerokoa. - IUP-aren memorian Detekzio Goiztiarra eremuan egindako lanaren balorazioa azaltzea.
Hizkuntz Proiektua egin	- Hizkuntz Normalkuntzako batzordea. - Hizkuntz mintegi buruak	2. eta 3. hiruhilabetea	- Hezkuntzak eskainitako gida - Programazioak	Web orrian Hizkuntz Proiektua argitaratzea.

2.HELBURUA: Ikasleriaren aniztasuna kontutan hartuta, banakako erantzuna emateko neurriak ziurtatzea ,behar diren metodologia aldaketak emanaz.

➤ **Ikasturte hasieran proposatutako tutoretza plana aurrera eramatea.**

JARDUERAK	ARDURADUNAK	TENPORALIZAZIOA	BALIABIDEAK	LORPEN ADIERAZLEAK
Aurreko ikasturtean hasitako proiektu komun bitartez maila bereko arloen lanketa bateratua sendotzea.	Mintegi buruak	Hiru hilabete bakoitzean bat.	Arloetako programazioak. Berrikuntza, formakuntza plana	Programazioen memoriak
Lauaizeta Ikastolako prentsa digitalean proiektu komun horiek islatzea.	IKT batzordea. Mintegi buruak	Hiru hilabete bakoitzean ale bat-	Prentsa digitala Drive	Ale bakoitzean argitaratzea.
Ahozko eta idatzizko komunikazioa arlo guztietan sendotzea.	HNP-aren arduraduna.	Ikasturtean zehar	Programazioetan txertatu	Programazioaren memoriak.
Ikasten ikasi gaitasunetan trebatzea	Berritzeguneko erreferentea.	2.hiruhilabetean	Proiektuak, formakuntza, testu liburuak, prestatutako txantioiak	-Mailaka ikasketa tekniketarako jarraibideak. - Programazioen memoriak
BIDE LAGUN programaren partaideen monitoreekin koordinazioa hobetzea.	Aniztasun Batzordea	Hiruhilean behin	- Driven saioen egunerokoa - Aurrebaluazio, ebaluazio bilerak	-Driven egindako saioen egunerokoaren balorazioa jasotzea. IUP-aren memoria.
DK ikasleak talde arruntekin lan bateratuak egiteko ildoak ezartzen hastea.	Orientazio mintegia. Aniztasun batzordea.	1.hiruhilabetean behin.	Programazioak	Programazioen memorietan azaltzea.
Banakako programazioak eta txostenak hobeto gauzatzea.	Arloko irakaslea. Aniztasun batzordea	1. eta 3. hiruhilabeteak	Programazioak	Programazioen memoria eta bukaerako txostenak prest edukitzea

Banakako orientabideak luzatu egoera berezietan (osagarriak, PCPI...)	Tutotea Orientatzailea	2. eta 3. hiruhilean	Horretarako prest dauden dokumentuak	Memoriak
Ikasleengana hurbildu tutoreen bitartez, bakarkako arreta eskaintzeko.	Tutoreak Orientatzailea	Ikasturte osoan zehar	Tutoretza plana	Tutoretza memorian azaltzea
Gurasoekin informazio trukaketa bermatu, harremanak sendotu, eta beharren arabera laguntza desberdinak proposatu.	Tutoreak Orientatzailea	Ikasturte osoan zehar	Tutoretza plana	Gurasoen galdetegietan isladatzea
Proiektu desberdinak burutu eta aurrera eramateko kudeaketetan parte hartu (Guraso eskola, eta ikasleentzako hainbat jarduerak).	Tutoreak Orientatzailea	Ikasturte osoan zehar	Tutoretza plana	IUP-aren memoria

3.HELBURUA: Euskararen erabilera bultzatzea				
JARDUERAK	ARDURADUNAK	TENPORALIZAZIOA	BALIABIDEAK	LORPEN ADIERAZLEAK
Hizkuntza Proiektuaren barruan euskararen trataera ondo isladatu.	HNP Batozrdea Hizkuntzetako mintegi buruak	2.,3.hiruhilabetea	Hizkuntza Proiekturako gida.	Web orrian dokumentua
Euskararen egunaren inguruan arloen arteko proiektua osatzea.	HNP batzordea	1. hiruhilabetea	HNP proiektua	Proiektuaren memorian isladatzea.
Lehen Hezkuntzako ikastetxeekin jarduera bateratua auzoetan. (Euskararen eguna)	Lau ikastetxetako zuzendaritza taldeak	1.2. hiruhilabeteetan	HNP proiektua	Proiektuaren memoria
Programazio guztietan euskal kultura eta nortasuna txertaketa sendotzea..	Mintegi buruak	1.hiruhilabetean	Programazioak	Memoriak
Euskal kultura zabaldu eta bultzatu ikastetxean	Euskara Batzordeak HNP arduradunak	Ikasturtean zehar	Ikastetxean antolatzen diren kultura jardueren egitaraua	Kultura jardueren balorazioak Egitaraua
Euskara normalkuntzarekin erlazioatutako dokumentazioa zein edozein informazio intranetean azaltzea	HNP IKT	2. hiruhilabetea	Dokumentazioa Intraneta	Intraneten horren islada egotea.
Irakasleok Ikasleekin ditugun hartu emanetan euskarari eustea	Klaustroa	Ikasturtean zehar	Konpromisoak	Egindako behaketaren memori
Familiekin euskararen erabilera bultzatzen landu	HNP Batzordea: familiak eta irakasleak	Hilean behin		IUP memorian

4.HELBURUA: Inguru jasagarria				
JARDUERAK	ARDURADUNAK	TENPORALIZAZIOA	BALIABIDEAK	LORPEN ADIERAZLEAK
Mugikortasuna	Proiektuko arduraduna Gorputz Hezkuntza mintegia	1. hiruhilabetean	Udaletxeak antolatutako jarduera	Parte hartzea
Energia berriztagarriak. Goiener.	Proiektuko arduraduna	Ikasturtean zehar	Goiener enpresarekin lan egin	Enpresarekin kontratua
Ikastetxean espezifikoki sortze diren hondakinen kudeaketa hobetu	Proiektuko arduraduna	Ikasturtean zehar	Hondakinak berziklatzeko ontziak ikastolako eremu guztietan Ikasturte amaierako gogobetetze inkesta	-Hondakinak biltzeko ontzien erabilera. - Konposta egina izatea

5.HELBURUA: Sare Hezkuntza programa burutu.

JARDUERAK	ARDURADUNAK	TENPORALIZAZIOA	BALIABIDEAK	LORPEN ADIERAZLEAK
Irakasleen IKT formakuntza bultzatu	IKT batzordea Zuzendaritza	1. eta 2.hiruhilabetea	Formakuntza	Formakuntza saioetako erregistro orria.
Ikastetxeko barruko zein kanpoko komunikazioa hobetzeko tresnak hobetzen jarraitu.	IKT batzordea Zuzendaritza	Ikasturtean zehar	Ikastetxeko baliabide digitalak	Posta elektronikoa. Einika. Koaderno digitala
Ikastetxeko baliabide digitalak eta multimedia baliabideak irakasleek sortu.	IKT batzordea Zuzendaritza	Ikasturtean zehar	Formakuntza.	Formakuntza saioetako erregistro orria. Programazioak.
Ipentsaren berraztertzea	Zuzendaritza	1. eta 2. hiru hilabetean	Ipentsa batzodea	Batzordea sortu eta berak kudeatu

6.HELBURUA: Guraso eta ikasleen partaidetza bultzatu

JARDUERAK	ARDURADUNAK	TENPORALIZAZIOA	BALIABIDEAK	LORPEN ADIERAZLEAK
Gurasoekin harremanetarako ditugun baliabideak hobetzea:	Zuzendaritza Sibilia Gurasoen Elkartea	- Hilean behin Zuzendaritza eta Gurasoen Elkarteko bilerak. - Apirilean galdetegia.	- Posta elektronikoak zalantzak eta kezkek jasotzeko. - Galdetegiak-	Galdetegiaren emaitzak kontuan hartuta, bilera horietako gidoi berriak osatuta.
Ikasleek dituzten iritzi eta proposamenak bideratzeko estrategiak hobetzea: - Tutoretzen bitartez. - Ordezkariak eta Zuzendaritzak dituen bileren bitartez	Tutoreak Ikasleen ordezkariak Zuzendaritza	- Astero tutoretzetan. - Hiruhilean behin ikasleen ordezkariak eta Zuzendaritzakideak	- Tutoretza plana. - Galdetegiak.	- IUP-ren memoria -Ikasleek beteko dituzten galdetegiaren emaitzak
3. eta 4. mailako ikasleek atsedean garaian jarduerak antolatzea.	- 3 eta 4.mailako ikasleak - Tutoreak. - kasketa burua	- 4.mailakoek 1. eta 2. hiruhilabetean. - 3.mailakoek 3. hiruhilabetean	Aurreko ikasturteko memoria.	- IUP-ren memoria.
IPRENTSA aldizkarian ikasleen parte hartze aktibo eta erabakigarriak bideratzea.	Mintegi buruak	Hiruhilabetean behin	Iprensa aldizkaria	Iprensa 3 aleetan argitaratutako materiala
Sibilia Gurasoen Elkartean IUPrako proposamenak egitea.	Sibilia Gurasoen Elkarteko Lehendakaria	Irailan, urrian eta ekainean	Aurreko ikasturteko memoria	Ikasturteko IUPn beraien proposamenak agertzea.

7.HELBURUA: Lehen Hezkuntzako ikastetxeekin harremanak finkatu				
JARDUERAK	ARDURADUNAK	TENPORALIZAZIOA	BALIABIDEAK	LORPEN ADIERAZLEA
Jatorrizko Lehen Hezkuntzako ikastetxeekin Hobekuntza Planetan irizpide bateratuak lortu.	Zuzendaritzak	Bi hilabetez behin egiten ditugun bileretan	Hobekuntza planak. Programazioak	IUP-naren memoria
Lauaizeta Ikastolako ikasleek Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan bertan jarduerak eskaini, baita gurean ere	Mintegiak	Hiruhilabetez behin	Proiektuak	IUP-aren memorian azaltzea Aldizkaria digitalean isladatuta.
Lehen Hezkuntzako ikastetxeekin jarduera bateratua auzoetan. (Euskararen eguna)	Lau ikastetxetako zuzendaritza taldeak	1. hiruhilabeteetan	HNP proiektua	IUP-aren memorian azaltzea Aldizkaria digitalean isladatuta.

8.HELBURUA: Auzoetako eragileekin iharduerak bultzatu, baita beste herri batzuekin ere.				
JARDUERAK	ARDURADUNAK	TENPORALIZAZIOA	BALIABIDEAK	LORPEN ADIERAZLEA
Euskararen aitzakia hartuta auzoetan lan egitea: - 100hitz 100euro lehiaketa - Korrika	HNP Zuzendaritzak	2. hiru hilabeteak	Intxaurrondon dauden elkarteek jarduera burutzeko eskaintzen diguten materiala.	- IUP-aren memorian azaltzea -iprentsa aldizkarian azaltzea
Kultur Etxeekin batera jarduerak antolatu	Zuzendaritza	2. eta 3. hiruhilabeteak	Udalak eskaintzen diguten jardueretarako materiala.	- IUP-aren memorian azaltzea - iprentsa aldizkarian azaltz
Frantziako Versalleseko Instituto batekin elkartrukea	Atzerriko hizkuntzen mintegia	Apirilean	- Internet lehenengo harremanetarako eta trukearen ondoren jarraipena egiteko.	-Proiektuaren memoria.
Tabakalerarekin elkarlana	Plastika mintegia	Ikasturte osoan zehar	Tabakalerak eskainitako jarduerak gureekin lotu	Jardueren memoriak
Gcangas de Reis, Girona edota Valentziako instituto batekin elkartrukea	Ikasketa Burua	3.hiruhilabetean	Interneta harremanak bultzatzeko	Ipentsan bideoak eta lanak
Intxaurrondo eta Egiako Gazte Lokalekin harremanak sendotu	Orientatzailea	1.hiruhilabetean		IUP-ko memorian isladatzea.

9.HELBURUA: Barneko ebaluazioa sustatu.

JARDUERAK	ARDURADUNAK	TENPORALIZAZIOA	BALIABIDEAK	LORPEN ADIERAZLEAK
Irakasle, guraso eta ikasleek ikasturteko planean lortutako emaitzen balorazioa egin.	Zuzendaritza Tutoreak Mintegi buruak Gurasoen Elkarte	3.hiruhilabete	Galdetegiak	Galdetegien emaitzak IUP-ren memorian.
Irakasleek egindako formakuntzaren balorazioa egin	Zuzendaritza.	3.hiruhilabete	Galdetegiak	Galdetegien emaitzak IUP-ren memorian.
Ikasleek egindako proposamen eta jardueren balorazioa egin.	Tutoreak Ikasleak Zuzendaritza	Ikasturtean zehar	Jardueren zerrenda	Iritzien memoria IUP-ren memorian bilduta izatea.
Ebaluazio bakoitzean arloari balorazioa egiten sistematizatu.	Mintegi buruak Ikasleak	Ebaluazio bakoitzaren ondoren	Programazioa	Ebaluazioaren memoria IUP-aren memorian
Gurasoen balorazioak jaso.	Zuzendaritzak Sibilia Guraso Elkarte	3.hiruhilabete	Galdetegi zaharrak	IUP-ren memorian.

3.- IRAKASKUNTZA-JARDUEREN PROGRAMA

3.1.- OHIKO IRAKASKUNTZA-JARDUERAK.

3.1.1. Antolakuntza eta funtzionamendua.

EGUTEGIA

* H.U.I.S.*
DATA: 2016/05/11



ORR.: 1
ERREF.: pw49008

2016-2017KO ZENTROAREN EGUTEGIA

Maila: DBH

Ikastetxeko kodea: 012958
Ikastetxearen izena: IES LAUAIZETA IKASTOLA BHI
Kurtsua: 2016-2017
Udalerria: Donostia / San Sebastián
Lurraldea: Gipuzkoa
Ikusk. Zonaldea: Donostia: Zona 1

IRAILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

URRIA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

AZAROA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

ABENDUA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

URTARRILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

OTSAILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28				

MARTXOA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

APIRILA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

MAIATZA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

EKAINA

AL.	AS.	AZ.	OG.	OR.	LR.	IG.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

EGUNA	GOIZEZ	ARRATSALDEZ	SAL.	ATS.
AL.	08:30-13:00	14:30-16:30	6	00:30
AS.	08:30-13:00	14:30-16:30	6	00:30
AZ.	08:30-14:00		6	00:30
OG.	08:30-13:00	14:30-16:30	6	00:30
OR.	08:30-14:00		6	00:30
TRI.	08:30-14:00		6	00:30

Guztira Eskola-egunak: 175

Guztira Klase-egunak: 175

Eskola-orduak guztira: 1050.00

Lektiboa	15	Asteburua	15	Jardunaldi trinkoa	15	Jardunaldi berezia	15
Jaieguna	15	Klase gabeko lektibo	15	Oporaldiak	15	Zaintzari eguna	15
Herri jaia	15	Inhaureria	15	Zubia	15	Aurkezpena	15

AURRE EBALUAZIO ETA EBALUAZIO DATAK:

1. EBALUAZIOA:

Aurrebaluazioa:

Urriaren 26an 1. eta 4. mailak
Azaroak 2an 2. eta 3. mailak

Ebaluazioa:

Abenduaren 13an 1. eta 4. mailak
Abenduaren 14ean 2. eta 3. mailak

Ebaluazio txostenaren banaketa: abenduak 23

2. EBALUAZIOA:

Aurrebaluazioa:

Otsailaren 8an 1. eta 4. mailak
Otsailaren 15ean 2. eta 3. mailak

Ebaluazioa:

Martxoaren 29an 1. eta 4. mailak
Martxoaren 30an 2. eta 3. mailak

Ebaluazio txostenaren banaketa: apirilak 7

3. EBALUAZIOA:

Aurrebaluazioa:

Maiatzaren 17an 2. eta 3. mailak
Maiatzaren 18an 1. eta 4. mailak

Ebaluazioa:

Ekainaren 13an 1. eta 4. mailak
Ekainaren 14ean 2. eta 3. mailak

Ebaluazio txostenaren banaketa: ekainak 21

IKAS TALDEAK

- 1. mailan 16, 18 ikaslez osatutako 5 talde ditugu.
- 2. mailan ere 22, 24, 25 ikaslez osatutako beste 4 talde.
- 3. mailan 22, 23 ikaslez osatutako 3 talde ditugu eta 10 ikaslez osaturiko aniztasun curricularreko talde bat.
- 4. mailan 21 ikaslez osatutako 3 talde eta 12 ikasleko Aniztasun curricularreko talde bat dugu.

Lehenengo mailako talde berriak eta gainontzeko taldeak antolatzeko garaian, ondoko hauek izan dira kontutan izan ditugun irizpide eta ardatzak.

1. Maila

Aurten jatorrizko taldeak mantentzea erabaki dugu. Taldeak orekatuak ziren kopuru aldetik eta aurten frogatik erabaki dugu, ikasleak jatorrizko taldeetan babestuago egongo direlakoan. Datorren ikasturtean nahastu egingo ditugu.

Lehen aipatu bezala, aurten bost talde ditugu eta gure giza baliabideak aztertu eta gero, arlo gehienetan asteen behin bi irakasle gelan aritzeko aukera izan dugu. Honela, ikasleen beharrak bermatzea errazago izango zaigula eta gertuagoko arreta jasoko dute. Honetaz gain, zailtasunak dituzten ikasleek aukera izango dute BIDEFLAGUN proiektuaren barruan, bai ulermen estrategiak lantzeko baita etxeko lanak egiteko ere. Laguntza hau eskola ordutegitik kanpo izango da.

2. Maila.

Maila honetan lau talde ditugu. Lehenengo mailatik 2. mailara igarotzean hainbat aldaketa egin dira taldekatzeetan, berauek tutoreen proposamenen arabera egin dira, beti ere, aniztasuna eta giroa ahal den gehien orekatuz. Errepikatzaileak orekatuta daude taldeetan.

Horretaz gain, **Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Proiektuarekin** jarraituko dugu. Premia duten kasleak gela guztietan banatuko ditugu eta saio guztiak gainontzekoekin batera izango dituzte, gure ustez, atera dakiokeen etekina eta motibazioa areagotu baitaitezke. Bestalde, baliabideen onura gainontzekoengana iritsi daitekeela ere uste dugu. Programa horren ikasleek tutore bat izango dute.

Ikasle atzerritarrek asteen 8 orduko errefuertzua izango dute. Euskarako eta Fisikako klasetatik aterako dira irakasle batekin. Ikasle hauek talde berean kokatu ditugu hau aurrera eramateko.

Baliabideak banatzeko orduan, Euskarako, Naturako, Gizarteko, Matematikako, Gaztelaniako eta Ingeleseko bi saiotan bina irakasle sartuko dira aldi berean. Horrela ikasle hauek gertuagoko arreta jasotzeaz gain besteek ere izango dute honen onura. Maila honetan ere lehen aipatutako BIDEFLAGUN laguntza izango dute eskola ordutegitik kanpo.

3. maila.

Aurten lau talde ditugu.

Maila honetan ere astean behin bi irakasle sartzen dira gelara Matematikan. Aniztasun kurrikularreko taldeko ikasleak hainbat arlotan beste taldeekin bat egiten dute (Musika, Balore Etikoak, Gorputz Heziketa eta hautazko guztiak).

4. maila.

Maila honetan lau talde dauzkagu, aniztasun kurrikularreko taldea barne, aukerako arloak lantzeko nahastu egiten direlarik beraien aukeren arabera. Fisikan asteko saio batean bi irakasle aldi berean sartuko dira taldea oso handia delako. Aniztasun kurrikularreko taldeko ikasleak hainbat arlotan beste taldeekin bat egiten dute (Gorputz Hezkuntza, Informatika, Plastika eta Balore Etikoak)

IKASLEEN ORDUTEGIA

Astelehen, astearte eta ostegun goiz eta arratsaldez:
8:30-13:00 eta 14:30-16:30 ordu beteko saioak

Asteazken eta ostiraletan jardunaldi trinkoa
8:30-14:00, 50 minutuko saioak.

Iraila eta ekaineko ordutegia asteazkena eta ostiraleko bera izango da.

IRAKASGAIAK

1.mailako arloak:

Derrigorrezkoak:

4 ordukoak :Biologia, Euskara eta Matematika.

3 ordukoak: Gaztelania, Gizarte Zientziak eta Ingelesa.

2 ordukoak: Gorputz Hezkuntza eta Teknologia.

Ordu betekoak: Musika, Plastika, Balio Etikoak eta Tutoretza.

Hautazkoak (ordu bete astean):

Informatika, Frantsesa, Artisautza tailerra, Interaction I eta Laborategia.

2.mailako arloak:

Derrigorrezkoak:

4 ordukoak :Euskara eta Fisika eta Kimika.

3 ordukoak: Gaztelania, Ingelesa, Gizarte Zientziak eta Matematika

2 ordukoak: Teknologia, Plastika eta Gorputz Hezkuntza

Ordu betekoak: Musika, Balio Etikoak eta Tutoretza.

Hautazkoak (ordu bete astean):

Mate tailerra, Frantsesa, Asmakizun tailerra, Ikus-entzunezko tailerra eta Prentsa digitala.

3.mailako arloak:

Derrigorrezkoak:

4 ordukoak : Gaztelania eta Matematika.

3 ordukoak: Euskara, Gizarte Zientziak eta Ingelesa.

2 ordukoak: Biologia, Fisika eta Kimika eta Gorputz Hezkuntza

Ordu betekoak: Musika, Plastika, Teknologia, Balio Etikoak eta Tutoretza.

Hautazkoak (bina ordu astean):

Frantsesa, Diseinua, Mate tailerra, eta Prentsa digitala.

4.mailako arloak:

Derrigorrezkoak:

4 ordukoak : Euskara eta Matematika.

3 ordukoak: Gaztelera, Gizarte Zientziak eta Ingelesa.

2 ordukoak: Gorputz Hezkuntza.

Ordu betekoak: Tutoretza eta Balore Etikoak.

Hautazkoak (3 ordu astean):

Informatika, Frantsesa, Fisika/Kimika, Biologia/Geologia, Teknologia, Plastika, Latina eta Ekonomia

Ikasle bakoitzak 3 gai aukeratzen ditu

HEZKUNTZA LAGUNTZA ETA INDARTZEA ANTOLATZEA

Ikasleagoaren premiak eta irakasleriaren baliabideak aztertu eta gero, 1. mailako talde guztietan Euskara, Gaztelania, Ingelesa, Gizarte, Biologia eta Matematika arloetan astean behin bigarren irakaslea sartuko da ikasle guztiei laguntza eskaintzeko.

2. mailan ere bigarren irakaslearen laguntza izango dute Matematika, Gaztelania, Euskara, Gizarte, Ingelesa eta Fisikan astean bina saiotan.

3. mailan Matematikan astean behin izango dituzte irakasle laguntzaileak.

4. mailan Fisikako talde bat oso handia denez, astean behin bi irakasle egongo dira gelan. Aniztasun taldean astean behin bi irakasle izango dituzte Teknologian.

Landu beharrekoaren arabera antolatuko da gela: bi talde heterogeneotan banatu eta jarduerak txandatu, talde kooperatibotan lan egin jarraipen autonomoagoa duena, tertulia dialogikoak bi taldeetan egin...

ESPAZIO KOMUNEN BANATZEA

Ikasle guztiek erabili dezaketen gelak antolatzeko, driven, irakasle guztion eskura gela bakoitzeko ordutegia partekatuta dugu. Irakasleak berak, bere beharren arabera gela erabilera kudeatuko du.

Jolas garaian, ikasle guztien eskubideak bermatzeko, patioaren erabilera antolatu dugu eta egun bakoitzean mailaka jarduera bat edo beste egin dezakete.

3.1.2. Esperientziak, programak eta proiektuak

ZER	ARDURADUNAK
Jolas garaietako antolaketa	3. eta 4. mailako ikasleak
Frantziarekin elkartrukea	Frantseseko irakaslea
Tabakalera	Zuzendaritza/Plastika mintegia
Kultur etxearekin elkarlana	Zuzendaritza
Plastika eta Musika	Arloko irakasleak
Ikasle arteko aurkezpenak	Mintegiak
Euskara batzordea	HNP
Euskararen eguna	HNP
Santo Tomas	HNP
Santa Ageda	HNP
IPRENTSA aldizkari digitala	IKT batzordea
Fuentevaqueros (Granada)	DK. 4.mailako tutorea
Dance2gether	Zuzendaritza
Haur eta Gazte Literatura eguna (apirilak 3)	Euskara Mintegia
Hezkidetza lantzeko iharduerak 8azaroak 25, martxoak 8)	Hezkidetza batzordea

- **4. mailako ikasleen jarduerak:**

Ostiraletako patioaren erabileraren antolaketa beraien esku gelditzen da. Hortaz gain, joku gela eta beste egun batzuetako jolas garietan ere beste ekintza batzuk antolatuko dituzte. (Futbola, saskibaloia, futbolina, zumba..txapelketak)

- **Ingelesko irakurlea.**

Aurten ez digute eman baina unibertsitatearekin harremanetan jarri gara ea Erasmus beka duen norbait bidaltzen diguten, eta erantzunaren zain gaude.

- **Frantseseko Institutoarekin elkartrukea.**

Frantseseko 3. eta 4. mailako ikasleek elkartrukea egingo dute Versalleseko ikastetxe batekin.

- **Intxaurrendoko kultur etxearekin elkarlana**

Ireki zutenean zuzendariarekin harremanetan jarri ginen eta bertan egiten diren jarduerekin lotutako ekintzak burutu ditugu. Beraiekin harremana mantentzea espero dugu.

- **Iprentsa aldizkari digitala**

2. eta 3. mailako iprentsa tailerraren bitartez, hiruhilabetero argitaratzen den aldizkarian erantzukizun handia izango dute. Beraiek ekoizten dituzten lanekin eta beste mintegi eta arloetatik datorren materialarekin osatuko da .

- **Musika eta Plastika mintegia**

Ikasturte bukaeran emanaldi bat egingo dugu Intxaurrendoko kultur etxean gure 1.eta 2. mailetakoko ikasleentzat, LHko 6. mailakoentzat (Egia eta Intxaurrendoko auzoko ikastetxe publikoak) eta gurasoentzat.

- **Ikasleen arteko aurkezpenak**

Gure ikasleek LHko 6. mailakoei aurkezteko proiektuak prestatuko dituzte. Gure ikasleen artean ere egingo da.

- **Euskara Batzordea.**

3. eta 4. mailetakoko 18 ikasle ditugu HNPko arduradunarekin batera euskara eta euskal kulturaren alde lan egiten. Ikasturtean zehar jarduera eta ekintza desberdinak prestatuko dituzte. (Santo Tomas, Santa Ageda, piropo lehiaketa...)

- **Fuentevaqueros**

Granadako Fuentevaquerosko ikastetxearekin harremanetan jarriko dira Dk-ko ikasleak elkarlanean aritzeko. IPRENTSA n argitaratuko ditugu egiten dituzten lanak.

- **Euskararen eguna**

HNP proiektuaren barnean abenduaren 3-rako jarduera bereziak prestatuko dira. LHkoekin batera ere, ekintza bat egingo da auzoari begira.

- **Haur eta gazte literaturaren eguna (apirilaren 3a)**

Literaturaren inguruan hainbat jarduera prestatuko dira.

- **Hezkidetzaren lantzeko iharduerak (azaroak 25, martxoak 8)**

Hezkidetzaren proiektua burutzen hasi behar dugula eta, hainbat iharduera antolatuko ditugu bi egun horietan.

ZER	ARDURADUNAK
BIDELAGUN	Zuzendaritza, tutoreak, monitoreak
CURRICULUM ANITZEKO PROGRAMA	Tutoreak
HBSP	Tutorea
TUTORETZA PLANA	Orientatzailea/Tutoreak
AGENDA 21	Proiektuaren arduraduna
HEZKIDETZA PLANA	Proiektuaren arduradunak
PROIEKTU EUROPEARRAK	Atzerriko hizkuntzen mintegia
SARE HEZKUNTZA	IKT -en arduraduna
HIZKUNTZA PROIEKTUA	Hizkuntz normalkuntzako arduraduna

- **Bidelagun**

Lau talde ditugu eta talde bakoitzak bi saio izango ditu.

Monitoreek egitura metodologikoei buruzko formakuntza jasoko dute gainontzeko irakasleek bezala.

*Eranskina 1

- **Curriculum anitzeko programa**

Bi talde ditugu, bata 3. mailan eta bestea 4.mailan eta hainbat arlotan beste ikasleekin batera izango dira: Plastika, Musika, Gorputz Hezkuntza, Balore Etikoak eta hautazkoak

- **Hezkuntza Berariazko Sendotzeko Programa**

2.mailan 9 ikasle osatzen dute taldea eta lau geletan banatuta daude. Ikasle hauek tutore bat dute eta ikasle bakoitzak banakako programazioa eta txostena du.

*Eranskina 2

- **Tutoretza plana**

Orientatzailearen eskutik tutoreak astean behin biltzen dira eta asteroko tutoretzak prestatzen dituzte. Bilera hauetan ikasturtean zehar egon daitezkeen arazoak eta beharrak aztertzen dira.

*Eranskina 3

- **Agenda 21**

14-15 ikasturtean sartu ginen programa honetan eta aurten ere jarraituko dugu.

*Eranskina 4.

- **Hezkidetza Plana**

*Eranskina 5

- **Proiektu Europearrak**

*Eranskina 6

- **Sare Hezkuntza**

Aurtengo berrikuntza moduan, tableten erabilera eta sare hezkuntza daukagu. Sare hezkuntza proiektuaren barruan ikastetxearen digitalizazioa bultzatuko dugu eta material digitala sortuko dugu IKT formakuntza saioetan.

*Eranskina 7

- **Hizkuntz Proiektua**

*Eranskina 7

3.1.3.Prestakuntza eta garapen profesionala

- **Formakuntza Berritzegunean:**

- Orientatzaileen mintegian
- PTEen mintegian
- Zuzendarien mintegian
- BIDEFLAGUN mintegian
- HBSP mintegian
- Golden 5

- Hizkuntza Normalkuntza Proiektua (Ulibarri)Proiektuaren arduradunak parte hartuko du hilean behin. Ikasturte honetako erronka "Hizkuntza proeiktua"ren oinarria prestatzea.

- **Irakasleok formakuntza ikastetxean bertan**

- Gelako harremanak hobetzen: Golden 5 programa. Ikasketa buruak hartuko du parte elkarbizitza hobetzeko programa honetan. Berritzeguneko mintegietan ikasitakoa klaustro osoari zabalduko diogu formakuntza saio batzuetan.
- Autismoa eta gaixotasun psikotikoak.
- IKT: Sare Hezkuntza
- Hezkidetza

3.2 IRAKASKUNTZA-JARDUERA OSAGARRIEI BURUZKO PROGRAMA.

- 1. mailan talde kohesioa lantzeko jarduerak BAIKARAREN eskutik.
- 2. mailan Adimen emozionala Zimentarriekin eta Sare sozialen erabilera BAIKARAREN eskutik
- 3. eta 4. mailetan heziketa afektibo-sexuala LAIAREN eskutik.
- **Gaua pasatzeko irteerak.**

- 1. mailan Arantzara
- 2. mailan Galiziako Cangas de Reis-ko edota Girona eta Valentziako ikastetxe batekin jarriko gara harremanetan beraiekin elkartruke bat egiteko
- 3. mailan Lizarrara
- 4. mailan Erroma edo Berlin 6 egunetarako.

- **Gizarte mintegiko irteerak.**

Donostiako Alde Zaharra ezagutzen, San Telmoko erakusketak, Guggenheim, Arditurri, Albaola

- **Euskara mintegiko ekintzak.**

Bilbora, Bagera Donostiako Euskalzale elkartearekin elkarlana, Intxaurrendoko euskara taldearekin 100 hitz 100 euro lehiaketa, Durangoko azoka. Santo Tomas ikastetxean oporrak hartu aurretik txistorrada eta euskal dantza eta ohiturak, Santa Agedako koplak abestera joatea, Sara eta Zugarramurdi ezagutu

- **Natur Zentzien mintegiko irteerak.**

Zumaiara 4. mailako ikasleekin., Añarbeko ur haraztegiara 1. mailakoekin

- **Gorputz Hezkuntzarekin lotutako hainbat ekintza.**

1. mailan: esgrima, 2. mailan: areto dantza eta igeriketa, 3. mailan: zumba eta arraun hastapen saioa eta 4. mailan: urpekaritza hastapen saioa, padel hastapen saioa, Waterpolo hastapen ikastaroa, igeriketa sinkronizatua ikastaroa, ur-sorospidetza ikastaroa, oinarrizko sorospidetza saioa, "Gerta dakizuke" bizkar muin lesioak ekiditzeko hitzaldia, surf hastapen saioa, eta softbol saioa

- **Atzerriko hizkuntzen mintegia**

Frantseseko 3. eta 4. mailetako ikasleak elkartrukea egingo dute.

- **Plastikako mintegia**

Balenciaga museora joango dira eta inguruan egongo diren erakusketen arabera antolatuko dituzte beste irteera batzuk.

4.- ESKOLAZ KANPOKO JARDUEREN PROGRAMA.

Azken ikasturteetan, eskolaz kanpoko ekintzak, Diputazioko Eskola Kirola Sailak hala erabakia, kirol elkarteen gain gelditu dira.

Bi auzoetako kirol elkarteek egiten digute euren eskaintza, guk ikasleei jakinarazten diegu eta nahia jasotzen dugu, ondoren kirol elkartei helarazten diegu, beraiek baitira antolaketa eta kudeaketa guztia bideratzen dutenak.

Hau 6. mailatik datozen ikasleekin egin ohi dugu, gainontzekoak jadanik elkarteetan baitaude.

4.mailan Ikas bidaiarako dirua lortzeko udaletxeak antolatutako Olentzero eta Errege magoen kabalgatan parte hartuko dute. Santo Tomas eguneko azokan postu bat jartzeko eskaera ere egin dugu eta **Toys r us**-eko arduradunarekin ere harremanetan jarri ginen gabonetan opariak biltzeko kanpainan parte hartzeko. Aurten agian ONG bateri emango ziotela esan ziguten baina ikastetxeek parte hartzeko aukera baldin badute lehenengoak gara zerrendan.

5.- IKASTETXEKO ZERBITZUAK.

Jangela

Arduraduna jardunaldi erdiarekin dago. Sukaldean dagoen sukaldari batekin eta lau monitoreekin antolatzen dute jantokia.

Jangelan geratutako den ikasleen batz besteko kopurua 160-koa da goiz eta arratsaldez gaudenean, eta 30-koa ordutegi trinkoa dugun egunetan. Bi txanda desberdinetan bazkalduko dute : 13:00etan lehenengoa eta 13:45tan bigarrena.

Arautegia ezarrita dago eta ikasle eta gurasoen gidan agertzen da.

Mediateka

Ikastetxeko ikasle guztiak dute aukera mediateka erabiltzeko. Jolas garaietan eta bazkaldu ostean ere, erabiltzeko aukera dago.

Arlo desberdinetako irakasleak ere erabiliko dute. Irakasle batzuk finkatuta dituzte erabileraren ordu batzuk. Beste batzuk beharren arabera erabiltzen dute.

Kultur etxearekin elkarlaneko ekintzetan erabiliko da, espazioari beste erabilera bat emanaz.

Mediatekako blogean liburu guztien katalogoa aurkitu daiteke, mailaka sailkatuta.

Arautegia ezarrita dago eta ikasle eta gurasoen gidan agertzen da.

Liburu mailegutza

2010-11 ikasturtean abian jarritako Testuliburuaren eta curriculum-materialaren Kudeaketa Solidarioa egiteko programak aurrera jarraitzen du 1. zikloko ikasleekin (1 eta 2 mailak).

Ikasle bakoitzak kuota batez gain, fidantza ere ordaintzen du eta kurtso bukaeran, liburuaren egoeraren arabera fidantza bueltatzen zaie.

Kuotak hauek dira:

1. maila: 41 euro kuota moduan eta 50 euro fidantza moduan

2. maila: 45 euro kuota moduan eta aurreko ikasturteko fidantza mantentzen da.

Fidantza bigarren mailako liburuak egoera onean itzuliz gero bueltatzen da.

6.- EKONOMIA KUDEAKETARAKO PLANA.

Aurrekontuak

9*Eranskina

7.- HEZKUNTZA-KOMUNITATEARI INFORMAZIOA HELARAZTEKO PLANA.

- Gurasoekin harremanetan jartzeko ditugun bideak hauek dira:

Ikastetxeko web orria, Einika, posta elektronikoa, posta arrunta, 1. mailako ikasleen agenda, idatziak eta bilerak.

- Ikasleen ikaskuntza prozesuari buruzko informazioa era honetan helarazten dugu:

Aurre ebaluazio bileren berri telefonoz edo zuzeneko bileretan guraso edo tutoreei.

Ebaluazio bakoitzean ikasleak ebaluazio txostena izango du, bertan emaitzak, oharrak eta aholkuak adieraziko direlarik. Tutoreek bilerak egingo dituzte familiekin. Beharren arabera banakako programazioak eta txostenak prestatuko dira.

- Irakasle-guraso/tutore harremanak:

Bakarkako elkarrizketak bitan gutxienez eta behar den bakoitzean.

Gelako bilera orokorrak: kurtso hasieran maila guztietan eta 3. ebaluazio hasieran 3. eta 4. mailako ikasleen gurasoekin orientazio lana burutuz. Zuzendaritzak ere parte hartuko du.

- Irakasleen artean:

Batzorde pedagogikoa: astelehenetan 10etatik 11etara. Partaideak: Zuzendaria, ikasketa burua, mintegi buruak.

Mintegi bilerak: mintegi bakoitzak ordu bete astean.

Zuzendaritza taldearen bilera: astearteetan 11etan.

Ebaluazio bilerak: bi ebaluazio bakoitzeko.

Maila bakoitzeko tutoreak orientatzailearekin ordu bete astean tutoretza saioak prestatzeko.

Klaustroa hiru hilean behin eta beharren arabera.

Taldeko irakasle eta mailako irakasle beharren arabera.

Bidelagun programako monitoreak eta arloko irakasleak beharren arabera.

Bide lagun monitoreak eta zuzendaritza hilean behin.

LHko irakasleekin ikasturtean behin mintegi desberdinak parte hartuz. Aurten, matematika, ingelesa, gizarte eta aholkulariak edo Ptak aurreikusten da.

- Irakasle-ikasle:

Tutoretza saioetan astean behin eta behar den bakoitzean.

Banakako tutoretza saioak Dk-n eta behar duten ikasleekin.

- Zuzendaritza-irakasle:

Aniztasun batzordean astean behin, Elkarbizitza batzordean astean behin, IKT batzordean astean behin, Batzorde pedagogikoan astean behin eta beharren arabera.

- Zuzendaritza-Gurasoen ordezkariekin:

Hilean behin

- Zuzendaritza- Kanpoko eragile/profesionalekin:

Berritzeguneko aholkulariekin hilean behin.

BIHE, hiru hilean behin

Ikuskaritzarekin: ikasturte hasiera eta bukaeran eta behar den guztietan.

LHko ikastetxeetako zuzendaritzarekin: azaroan eta ekainean eta behar den guztietan.

IUP-a EZAGUTARAZTEKO ETA APROBATZEKO ESTRATEGIAK

	ARDURADUNAK	DENBORALIZAZIOA	BIDEAK, BALIABIDEAK
IKASLERIA	Tutorea	Ikasturte hasieran. 1. ebaluazioan	tutoretza plana, tutoretza saioak
IRAKASLERIA	Zuzendaritza. Batzorde pedagogikoa	Ikasturte hasieran. 1. ebaluazioan	aurreko ikasturteko memoria, BPko bilerak, batzorde desbedinetako bilerak, klaustroa
FAMILIAK	zuzendaritza, OOGko gurasoak, Sibia	Ikasturte hasieran. 1. ebaluazioan	Ikasturte hasierako bilerak
OOG	zuzendaritza	Ikasturte hasieran. 1. ebaluazioan	OOGn onartu aurretik IUP helarazi posta elektronikoz
ADMINISTRAZIOA	zuzendaritza	Ikasturte hasieran. 1. ebaluazioan	Ikuskariari helarazi posta elektronikoz

8.- IUPren GARAPENAREN ETA IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDUAREN JARRAIPENA.

- **Driven:** Hilabete honetan zer, jarduera berezi eta irteeran balorazioa. Txantiloia prestatuta dago.
- **Memoriak:** arlo, mintegi, tutoretza, proiektu guztien memoriak eginez, ikasturteko memoria osatuko da eta bertan agerian jarriko da helburuak bete diren edo ez.
- **Batzorde Pedagogikoa** hainbat jardueraren jarraipena egingo da, mintegietan jasotako informazioa eskura izango dugulako.

9.- ERANSKINAK

- 9.1. OOGren onarpen akta
- 9.2. Ikastetxearen plan zehatzak:
 - 1. Bidelagun
 - 2. HBSP
 - 3. Tutoretza plana
 - 4. Agenda 21
 - 5. Hezkidetza plana
 - 6. Proiektu europearrak
 - 7. Sare Hezkuntza
 - 8. HNP
 - 9. Ekonomia kudeaketarako plana
 - 10. OG akta

1. ERANSKINA

BIDELAGUN

PLANIFIKAZIOA

Helburuak

Kontuan hartuta gure jatorrizko ikastetxe batzuek ere BIDELAGUN programaren barruan daudela, Lehen Hezkuntza horrelako laguntza jaso duten ikasleak Bigarren Hezkuntzara datozenean ere, laguntzarekin jarraitzea eta antzeko irizpideak erabiltzeko haien irakasleekin ere koordinatzea ona litzateke.

- Ikasle horien gaitasun garapena lortzeko, monitoreek ikastetxean erabiltzen ditugun metodologiei buruzko formakuntza jaso.
- Irakasle, tutore eta monitoreen arteko koordinazioa era bertikal eta horizontalean bultzatu.
- Monitore eta familia edota tutore eta hezitzaileen arteko koordinazioa bultzatu.
- Ikasle guztiek bizitzan aritzeko behar dituzten prozedurak eta estrategiak eskuratzeko, monitoreek ahal dituzten baliabide guztiak eskaini eta sistematizatu.
- Eskolaz kanpo saio horietan ikasleen absentismoa ebazteko, ikastetxea ikasleen egoera pertsonalera egokitu.
- Gatazkak saihesteko behar diren ekintzak eta egiturak bultzatu.
- Familia, etxeko tutore eta tutoreekin ikasle guztien banakako jarraipena ziurtatu.
- Ikasleak, etxeko tutore eta gurasoekin saio horietan ere partaide errealak eta erabakigarriak izateko egiturak eta ekintzak bilatu.
- Monitore eta giza bitartekariekin hartu-emanak ziurtatu.
- Ikastetxean gauzatzen diren proiektuetan monitoreek parte hartu, haiek dituzten emaitzak hobekitzeko.

Jardueren deskripzioa eta irakasleen inplikazioa

JARDUEREN HELBURUAK

- 1. eta 2.mailakoei agenda erabiltzen eta lana planifikatzen eta ordenatzen laguntzea.
- Azterketak dituztenean, ikasten irakastea. Horretarako aurretik ikasketa teknikak landuta: ideia nagusiak, laburpenak, eskemak.
- Oinarrizko konpetentziak (irakurketa, idazketa, ulermena, buruko kalkulua, problemen ebazpenerako estrategiak) garatu gabeko ikasleak horretan trebatzea.
- Dituzten etxeko lanak egunean eramatea.
- Teknologia berrien erabilpenean atzerapena dutenen kasuan, trebatzea, eta etxean baliabide digitalak ez dituztenean, aukera eman.
- Maila desberdineko ikasleak egonda, elkarri laguntzea: elkarreragitea, talde kooperatiboetan jarduerak burutzea.

ANTOLAKETA

Lau saio egingo dituzte ordu betekoak astelehen, astearte eta ostegunetan 13:30etatik 14:30etara eta asteazkenetan 14:30etatik 15:30etara.

- Agendaren gaurkotzea.
- Etxeko lanak
- Oinarrizko konpetentziak:
 - Ulermena bai ahozko bai idatzizkoa, idazketa, irakurketa eta ikasketa teknikak landuko dira.
 - Buruko kalkulua eta problemen ebazpena

BIDELAGUN ETA IKT-ak

Gure ikastetxean IKT-ren inguruko formakuntzak aniztasunarekin zerikusirik duen metodologiarekin batera izugarritzko garrantzia izan duenez, BIDELAGUN saio horietan ere erabiltze erabaki dugu.

Hasteko, monitoreek ikastolako egitura barruan bere moodle propioa izango dute: bertan Matematika eta Euskara irakasleek erabilgarria izan daitekeena erabiltzea izango dute, ikasleek behar dutena indartzeko. Monitoreek ere nahi duten bezala kudeatuko dute: beraiek sortutako ariketak, jarduerak,...Ikastetxeko irakasle bakoitzak monitoreak bere moodle-ean sartuko ditu. Era horretan monitoreek ikus dezakete zer bidaltzen ari garen eta zer eskatzen dugun.

Ikasleekin baliabide digitalak horrela erabil ditzakete:

Indartzekoak diren zatietan:

- Ahozko ulermena lantzeko:kantak, bideoak,...
- Idatzizkoa lantzeko: zuzentzaileen erabilera autonomoa: gelan egiten diren idatziak eta monitoreek proposatzen dituzten laburpenak eta edozein idatzi.
- Matematika eta Euskaran: Moodle-n plazaratutako jarduerak egiten.
- Etxeko lanak egiteko: irakasle askok moodle-a erabiltzen dute, ikasleek lanak era autonomoa batean lan egiteko: aurkezpenak, txantiloak, eskemak, indartzeko jarduerak,... Beraz, monitoreek etxeko lanetan laguntzeko plataforma hori ezin hobea da, hor behar den material guztia eskura baitute.

Ikastetxeko irakasle bakoitzak monitoreak bere moodle-an sartuko ditu. Era horretan monitoreek ikus dezakete zer bidaltzen ari garen eta zer eskatzen dugun.

Moodle-a indarrean duten irakasleek gonbidatu gisa sartuko ditu monitoreak, monitoreek ikusteko zer ari garen lantzen eta zer eskatzen diegun.

MONITOREEN FORMAKUNTZA

Ikastetxean urtero irakasle guztiekin egitura metodologikoen formakuntza (bi irakasle gelan, tertulia dialogikoak, talde kooperatiboak) eta IKT-ren inguruan (Moodle.a,...)egiten den bezala, monitoreekin ere egingo dugu; era horretan lotura handiagoa lortuko dugu. Hau urrian egingo dugu.

KOORDINAZIOA (Irakasleak, monitoreak, koordinatzailea, zuzendaritza taldea, senideak)

Hasteko, monitoreei ikastolako helbide elektronikoa ematen zaie, eta irakasleen helbideen moduan ikastolako web orrian eskuragarri jartzen dira, bai gurasoek, bai irakasleek erabiltzeko. Harremanetan jartzeko sistemarik azkarrena dela baieztatu dezakegu.

Ostegunetan 12:30etatik 13.30etara koordinazio bilerak

Familiekin:

- Urrian egiten den lehenengo bileran monitoreen aurkezpena egiten da.
- Ebaluazio bakoitzeko boletinean eskolaz kanpoko laguntzari buruzko informazioa txertatu.
- Einikaren bitartez eguneko informazioa: huts egiteak, oharrak.

Tutoreekin:

- Aurrebaluazio bakoitzaren ondoren monitore eta tutoreen arteko koordinazioa.
- Posta elektronikoen bitartez eguneko informazioa: huts egiteak, oharrak.
- Monitoreek saioetako egunerokoan idazten duten lanaren jarraipenaren bidez, tutoreei ikasleen kontrola eramateko ematen die: egiten dituzten lanak eta jarrera. Hori drive dokumentu parekatuan egingo da.

Arloko irakasleekin:

- Hiruhilean behin mintegiekin bilerak, non oinarrizko estrategiak garatzeko egin beharreko lanak erabakiko diren.
- Saioetako koadernoan egiten duten lanaren jarraipena: egiten dituzten lanak eta jarrera.
- Hiruhilean bitan (aurrebaluazio eta ebaluazioaren ondoren) irakasleek txantioi bat beteko dute programan dauden ikasleek zer indartu behar duten jakiteko eta monitoreei postaz bidaliko diete.
- Posta elektronikoa erabiliko da behar diren kezkek eta zalantzak irakasleei helarazteko .
- Monitore eta irakasleen artean partekatuta izango dugun drive dokumentuaren bitartez jakingo dugu ikasleek zein lan egin dituzten saio horietan.

Koordinatzailearekin

- Astero koordinazio bilera egingo da. Helburua: metodologiaren ezarpena (zailtasunak eta zalantzak argitu) eta saioen antolaketa.

Zuzendaritzarekin

- Aniztasuna Batzordearen bitartez, zuzendaritzak BIDELEGUN saioetako monitoreekin jarraipena egongo da, batzorde horretan ikasketa burua baitago, eta astero biltzen dira.
- Aniztasun Batzorde horretan monitoreek ere parte hartuko dute hilean behin.

Proiektuaren ebaluazioa

- Eragile guztien arteko koordinazio bilera guztietan egindakoaren ebaluazioa egingo da; bertan beharrezkoak diren aldaketak erabakiko dira.
- Ikasturtearen hasieran parte hartuko duten oinarrizko gaitasunen ikasleen ebaluazioa egingo da, eta hiruhilabetean behin frogak egingo zaizkie, bilakaera neurtzeko.
- Ikasturtearen bukaeran galdetegi bat pasako zaie: monitoreei, gurasoei, ikasleei eta irakasleei. Eragile guztiek egiten dituzten proposamenak kontuan hartuko dira ,hurrengo ikasturteko plana hobetzeko.
- Koordinatzaileak Aniztasun Batzordearekin batera ardura hartuko du saio horietan beharrezkoak diren bilerak, lanak, frogak eta galdetegiak aurrera eramaten, eta hobetzen.
- Programa osoaren jarraipena Aniztasun Batzordeak eramango du. Bertan: zuzendaria BIDELEGUN koordinatzaile moduan, orientatzaileak, PTE, HBSP tutorea, DK tutoreak eta . Zuzendaritza eta irakasleen arteko bitartekaria izango da.

Ikasleen ebaluazioa

- Hilean behin monitoreak tutoreekin bilduko dira ikasleen ebaluazioa egiteko.
- Notak emateko garaia ailegatzen denean, monitoreek txosten bat bateko dute, eta horren informazioa noten boletinean txertatuko da, etxeetara ailegatzeko.
- Ikasturtearen bukaeran bi atal ebaluatuko dira: ikasleek lortutako emaitzak (irakasleekin batera), egindako lanaren errendimendua.

Hori guztia kontuan hartuta, hurrengo ikasturtean erabakiko da, saio horietan jarraitu ala ez.

2. ERANSKINA

H BSP

JARDUERAK

Gela barruan burutuko direnak: Bi irakasle batera gelan talde heterogeneoak kudeatzeko, ikasketa kolaboratiboa antolatzeke, gaitasunen garapena lantzeko IKTn laguntzarekin...; talde elkarreragileak, bikoteka irakurri,

Talde honen izaera eta ikasle hauek ikaste prozesuan erakutsi dituzten zailtasunak kontutan izanik, eguneroko lanari era eraginkor eta arrakastatsu batean ekiteko interbentzio modua zaindu behar dugu. Edozein kasutan ikaslearen motibazioa piztuko duen jarduera aktibo eta partehartzailea behar bada, talde honetan hau beharrezkoagoa da.

Proiektuan parte hartuko duten ikasleak talde naturaletan egongo dira banaturik eta hainbat arlotan bi irakasle egongo dira aldi berean. Horrela ikasle hauek onura jasotzeaz gain gainontzekoengan eragina izango du ere. Bi irakasle gelan jardungo duten saio horietan, era desberdintan antolatzeke aukera egongo da landu beharrekoaren arabera, bi irakasleak gelan antolatuko dira edo irakasle bakoitza ikasle talde txikiago batetaz arduratuko da, beti ere, alde zuzenetik landu beharrekoa antolatuz.

Talde honekin erabiliko dugun lan metodologia puntu hauetan oinarrituko dugu:

- Ikasle bakoitzaren beharretara egokituko dena, horretarako ikasle bakoitzaren egoera akademikoa modu indibidualizatuan aztertuko dugularik banakako programazioak eginda.
- Motibazioa piztuko duena, horretarako erakargarriak egiten zaizkien bideak erabiliz: teknologia berriak (informatika, internet,...) lan praktikoak (laborategia,...). IKTak irakaskuntzarako ezinbestekoak bihurtu diren honetan beraien erabilpenari bultzada emango zaio, gure ikasleen egunerokotasunean txertatuta daudelako eta IKTen erabilpenak lana erakargarriagoa egiten duelako, motibazioa areagotuz. Sare hezkuntza proiektuak ere honetan lagunduko digulakoan gaude.
- Talde kooperatiboak eta elkareragileak batez ere talde heterogeneotan oinarrituta: azken urteetako esperientziak erakutsi digu maila akademiko altuagoa duten ikasleek, zailtasunak dituztenei laguntzen dietela, beraiek ere ikasten dutena sendotuz, hau da, elkarrekiko onura sortzen da. Horrelako antolaketekin ikasleengan aurrerapen akademikoaz gain, euren autoestimua eta motibazio mailan urrats esanguratsua ematen dela baieztatu genezake. Taldean lan egiten ikasten dute eta ikasteko kooperatzen ikasten dute.
- Eguneroko lanaren kontrol zorrotza (egiten den guztiaren zuzenketa, koadernoaren behaketa iraunkorra,...)
- Landu beharreko edukiak sinplifikatu, sinplifikatu hauen barneratze prozesua, ezinbesteko garrantzia emango zaio oinarritzko prozeduren trebatze lanari.
- Agendaren erabilerari eta antolaketa orokorrari (artxibadoreak, karpetak,...) garrantzi handia emango zaio.

Gelatik kanpo burutuko diren jarduera inklusiboak: banan-banako tutoretzak, Bidelaguna, ordutegitik kanpoko indartzea, Berba laguna, ikasle laguntzailea...

TUTORETZA LANA

Ikasle hauek izan behar duten zuzeneko jarraipenari balio berezia eman nahi diogu, horretarako etengabeko banakako tutore-ekintza ziurtatu eta garatuko dugularik. Irakasle tutoreak ikasle hauekin izango dituen bilerek ahal den neurrian ez dute klase saio normalik oztopatuko, horretarako klaserik gabeko tarteak erabiliko direlarik (eguerdiak,...).

Tutoretza lan honen ardatz nagusiak:

- Arazo pertsonalek ikaste prozesuan izan ditzaketen interferentzien bideratze lanean lagundu.
- Tutoretza lan honetan ez da zuzenean arloekin zerikusia duena tratatuko.
- Ikaslearen lanaren kontrol estua ziurtatu. Talde honetan arituko direnek lan ohituretan defizit nabarmena dute. Horregatik egiten duten lanaren jarraipen zorrotza egitea ezinbestekoa deritzogu
- Ikaslearen garapen akademikoa hobetzeko proposamenak egin:
 - Agendaren erabileraren kontrola (1. hiruhilabetean)
 - Ordena
 - Materialaren erabilera
 - Orientazio akademikoa
- Horretaz gain, hainbat ikasle laguntzailea izango dira, talde kooperatiboetan izendatuta daudenak. Beraiek ardura hartuko dute ikasle hauei agendan eta behar diren lanen antolaketa aurrera eramateko. Ikasle laguntzaile horiek aldatzen joango dira hiruhilabete bakoitzean.

SENIDEEKIKO HARREMANAK

Familiekin komunikatzeko era anitzak; parte-hartzea gelan; formakuntza proposamenetan parte-hartzea, Ikasketa kontratuak...

Ikasle hauen tutoretza lanaren beste atal garrantzitsua gurasoekin izan beharreko harremanari dagokiona da. Ikasturte osoan zehar gurasoek ikaslearen martxaren berri zuzena dute, beraien partehartzean kokatzen baitugu prozesuaren arrakastaren gakoetako bat.

Kurtso hasieran tutoreak ikasleak eta hauen gurasoak bilera batera deituko ditu. Honen helburua lehen kontaktua bermatzeaz gain taldea eta proiektuaren aurkezpena egitea da. Proiektuaren barnean lan egiteko, gurasoen baimena beharrezkoa da eta beraien onarpena idatziz eskatzen zaie. Baina gurasoen onarpenaz gain ikasleen inplikazioa ere eskatuko da eta beraien konpromisoa ere sinatu beharko dute, hori gabe ez zaie talde honetan onartuko, ikasle bera bere ikas prozesuaren protagonista behar duela izan uste baitugu.

KOORDINAZIOA:

Ikasleko curriculumaren egokitzapen pertsonala egingo da, banan banakakoa ikaslearen ezaugarriak ezagututa. Arloko irakasleak egin beharko du HBSP taldeko tutorearekin adostuz. Horretarako, era sistematizatu batean izateko, txantilo bat prestatuko da inplikaturako irakasle guztiek jarraipena egin dezaten, bertan, landu beharreko gaitasunak, lortu beharreko gutxiengo edukiak eta lorpen adierazleak azalduko direlarik. Banakako programazio horiek beharren arabera aldatzen joango dira, ikasleen behar nagusiei erantzuten.

Ordutegiak antolatzerakoan, HBSPko ikasleak dauden taldeek izango dute lehentasuna bi irakasle gelan egoteko eta dagozkigun giza baliabiabideak kontutan izanda ahal den arlo guztietan bi ordutan izateko aukera egongo da. Honetaz gain, ikastutean zehar hiruhilabete bakoitzeko

HBSPko tutorea eta taldeko irakasle guztiak bi aldiz bilduko dira ikasleen ebaluazioa egiteko (ikasleen ebaluazioan zehaztuta dago) eta beharrak eskatuz gero, gehiagotan izatea ahalbidetuko litzake.

Talde naturaletako tutoreekin talde kooperatibo eta elkarreragileen osaketa eta taldeko lan planerako pausoak zehaztuko dira.

Zenbait saiotan eta beharrak hala eskatuz gero, irakasle gehiagoren inplikazioa ziurtatzen da adibidez, talde elkareragileak antolatzean irakasle gehiagoren laguntza behar izaten delako. Jarduera hauek alde aurretik planifikatuta daudenez ez da arazorik izaten.

PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

Eragile guztien arteko koordinazio bilera guztietan egindakoaren ebaluazioa egingo da; bertan beharrezkoak diren aldaketak erabakiko dira.

Ikasturtearen hasieran parte hartuko duten oinarrizko gaitasunen ikasleen ebaluazioa egingo da, eta frogak desberdinak egingo zaizkie, bilakaera neurtzeko.

Ikasturtearen bukaeran galdetegi bat pasako zaie: gurasoei, ikasleei eta irakasleei. Eragile guztiek egiten dituzten proposamenak kontuan hartuko dira, hurrengo ikasturteko plana hobetzeko. HBSP koordinatzaileak Aniztasun Batzordearekin batera ardura hartuko du beharrezkoak diren bilerak, lanak, frogak eta galdetegiak aurrera eramaten, eta hobetzen.

Programa osoaren jarraipena Aniztasun Batzordeak eramango du. Bertan: zuzendaria PROA koordinatzaile moduan, orientatzaileak, PT, HBSP tutorea, DK tutoreak eta zuzendaritza eta irakasleen arteko bitartekaria izango da.

IKASLEEN EBALUAZIOA

Lehen aipatu dugun bezala, ikasle hauen garapenaren jarraipen zorrotzari garrantzi handia ematen diogu. Hau dela eta, prozesuaren ebaluazioari ematen zaion trataera berezia da.

Ohikoak diren 3 ebaluazioez gain, beste hiru une aprobetxatzen ditugu egindakoa baloratzeko:

Ebaluazio bakoitzaren aurretik taldeko irakaslearen bilera egiten da ikasleen lanaren eta egoeraren jarraipena egiteko. Hau honela izanik, talde honen ebaluazio faseak honako hauek lirateke:

1.- Aurre ebaluazioa. Irakaslearen egoeraren banakako azterketa, bakoitzaren abiapuntua finkatzeko baliagarria izango dena. Ebaluazio orri berezia prestatu dugu, non esparruko gaiak notekin ebaluatzen diren eta gainontzeko arloetan balorazio orokorra egiten den. Ebaluazio orria etxera eraman eta gurasoek sinatu behar dute.

Bilera egiten da: ikaslea + gurasoak + tutorea.

2.- 1. ebaluazioa. Txostena eta bilera. Ikaslea + gurasoak + tutorea.

3.- Irakasle guztiek informe bat bete eta ateratako ondorioekin gurasoekin bildu. Ikaslea + gurasoak + tutorea

4.- 2. ebaluazioa. Txostena eta bilera. Ikaslea + gurasoak + tutorea.

5.- Errepikatu behar duten ikasleen gurasoekin bilera. Honetan ikaslea ez da egoten, kurtsoa bukatzeko gelditzen den denborarako kaltegarria izan baitaiteke.

6.- 3. ebaluazioa. Ikasturtearen azken ebaluazioa. Ikaslea + gurasoak + tutorea.

3. RANSKINA

TUTORETZA PLANA

1.- HELBURUAK

2. OHIZKO IHARDUERAK

2.1.- TUTORETZA

- **1go Maila**
- **2. Maila**
- **3. Maila**
- **4. Maila**

1.- HELBURUAK

- Ikasturte hasieran proposatutako **tutoretza plana** aurrera eramatea.
- **Aniztasunaren trataera** dela eta, eskolako egitura desberdinetan martxan jartzen ditugun neurriak justifikatu, aztertu, baloratu,birmoldatu...eta ebaluatu.
- **Ikasleengana hurbildu** tutoreen bitartez, bakarkako arreta eskaintzeko.
- **Gurasoekin** informazio trukaketa bermatu, harremanak sendotu, eta beharren arabera laguntza desberdinak proposatu.
- **Proiektu desberdinak burutu** eta aurrera eramateko kudeaketetan parte hartu (Guraso eskola, eta ikasleentzako hainbat jarduerak).

2.- OHIZKO IHARDUERAK: TUTORETZA PLANA

TUTORETZA PLANA DBH 1go MAILA

1.- IKASLEEN PERFILA: 12/13 urteko gazteak.

- DBHko ikasketak hasten dituzten ikasleak garrantzi handiko etapa ebolutiboan aurkitzen dira eta, orokorrean, **hautzaroa utzi eta pubertaroa** edo nerabezaro-aurrea deitzen den **aroan sartzen ari dira**: fase honetan aurkikuntza eta eskuraketa handiak egiten dira baina, aldi berean, galera handiak ere izaten dira.
- Maila desberdinetako **ezegonkortasuna** (fisikoa, emozionala, afektiboa eta psikikoa) nagusituko da etapa honetan. Heldutasunera, burujabetasunera eta independentziara bideratuko dion prozesu batean **lehen urratsak** ematen ari da. 12 urterekin gertatzen da eta 14 urte arte luzatzen dela esan daiteke, hau da, DBHko 1. Zikloarekin bat dator.

2.- TUTORETZA PLANAREN HELBURUAK

- Komunikazio bideak bultzatzea
- Hezkuntza-prozesua pertsonalizatzen laguntzea
- Ikaslearen ikaskuntzak erraztea
- Ikasteko ohitura egokiak barneratzea
- Elkarbizitza demokratikorako arauen errespetua suspertzea
- Ikasleen premiak aztertu eta bideratzea
- Erabakiak hartzeko trebezia lantzea

3.- TUTORE LANAREN ESPARRUAK

IKASLEEI DAGOZKIONAK

- Ikasle bakoitzarekin elkarriketa indibidualak finkatu ikasturtean zehar, bakoitzaren egoera hobeto ezagutzeko.
- Ikasle taldean tutoretza programa adostu ondoren, martxan jarri.

FAMILIEI DAGOZKIONAK

- Talde bilerak finkatu (bat ikasturte hasieran), gurasoei ikastetxearen eta hezkuntza etaparen ezagutza errazteko.
- Banakako hezkuntza-prozesuari buruzko informazioa eman ondoren, lankidetzara bilatzea, elkarriketa indibidualen bidez (bi ikasturtean zehar denekin).

TALDEKO IRAKASLEEI DAGOZKIONAK

- Ikasleen informazio trukaketa
- Komunikaziorako bideak errazte

4.- PROGRAMA

GAIA	IHARDUERAK	BALIABIDEAK
Elkar ezagutzeko ariketak	<ol style="list-style-type: none"> Harrera plana. Tutoretza programaren aurkezpena Gelako kohesioa indartzeko iharduerak. Tutorearekin banakako elkarrizketa. 	<ol style="list-style-type: none"> Pere Pujolas “Ikasketa kooperatiboaren gida liburua” Baikarako ikastaroa “Jolasean erronkeei aurre egiten diogu” Hasierako galdetegia
Etapeta eta eskola ezagutzen	<ul style="list-style-type: none"> Eguneroko bizitza: elkarbizitzarako arauak. 	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleen gida Gure gela
Gure arteko harremanak	<ul style="list-style-type: none"> Soziograma Ordezkarrien hautakea Talde kooperatiboaren osaketa Sare sozialaren erabilera Aniztasuna Bullying 	<ul style="list-style-type: none"> Taldeko plana: helburuak, ardurak, eginkizunak,.. Bideoak: Si no lo haces en tu vida normal... ¿por qué lo haces en Internet?/No lo digas por Internet. Denak berdinak, denak desberdinak. Pelikulak: Billy Elliot/ Quiero ser como Beckam. Bideoa: “un dia mas”
Ikasketa teknikak	<ul style="list-style-type: none"> Ikasteko ohiturak . Ikasteko denbora antolatzen ikasi 	<ul style="list-style-type: none"> Galdetegia. Ikasteko plana osatu.
Ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> Boletina ezagutu Tutoretza ebaluaketa 1go ebaluaketaren balorazioa Bakarkako elkarrizketak 	<ul style="list-style-type: none"> Galdetegia “Espero dudana”
Autoezagutza	<ul style="list-style-type: none"> Adimen emozionala 	<ul style="list-style-type: none"> Nire alderdi baikorrenak. Nola ikusten naizen, nola ikusten nauten. Bizitzaren marra
Orientazio lana	<ul style="list-style-type: none"> DBH ZER DA DBH barruan dauden aukerak (PIE, DK,...). ... 	<ul style="list-style-type: none"> Ibilbideak
Ebaluaketa	<ul style="list-style-type: none"> Ikasturtekoa Tutoretza 	<ul style="list-style-type: none"> Galdetegiak.

TUTORETZA PLANA

DBH 2. MAILA

1.- IKASLEEN PERFILA: 13/14 urteko gazteak.

3. **Maila intelektualean**, pentsamendu logiko-formalaren garapena hasten da. Honek arazo baten aurrean konponbide eta aukera desberdinak aurrikustea ahalmentzen du.

4. **Maila afektibo-Emozionalean**, bere gisakoen taldea garrantzi handiagoa hartzen joaten da, eta bertan gero eta denbora gehiago igaroko du. Honen ondorioz familiarekiko eta irakaslearekiko urruntze/ emantzipazioa hasten da.

Hipersentikortasunak, ezegonkortasun emozionala eragiten du, une sutsuak eta alaitasun handikoak, adoragabezia eta tristura handikoekin tartekatzen dira.

• **Maila Psiko-Sozialean**, nortasun soziala eta politikoa osatzen eta sendotzen joango da. Balore eta jarrera pertsonalak finkatzen joango dira.

2.- TUTORETZA PLANAREN HELBURUAK

Gure ikasleen ezaugarriak kontutan hartuz, beraien garapenerako hainbat aspektu jorratzea espero dugu:

- Ikaslearen ikaskuntzak erraztea.
- Ikasteko ohitura egokiak barneratzea.
- Elkarbizitza demokratikorako arauen errespetua suspertzea.
- Ikasleen premiak aztertu eta bideratzea.
- Hezkuntza-prozesua pertsonalizatzen laguntzea.
- Erabakiak hartzeko trebeziak lantzea.

3.- TUTORE LANAREN ESPARRUAK.

IKASLEEI DAGOKIONAK

- Ikasle bakoitzarekin elkarrizketa indibidualak finkatu ikasturtean zehar, bakoitzaren egoera hobeto ezagutzeko.
- Ikasle-taldean tutoretza programa adostu ondoren, martxan jarri.

FAMILIEI DAGOKIONAK

- Talde bilerak finkatu (bat ikasturte hasieran), gurasoei ikastetxearen eta hezkuntza etaparen ezagutza errazteko.
- Banakako hezkuntza-prozesuari buruzko informazioa eman ondoren, lankidetzat bilatzea, elkarrizketa indibidualen bidez.

TALDEKO IRAKASLEEI DAGOKIONAK

- Informazio trukaketa.
- Komunikaziorako bideak erraztea.

4.- PROGRAMA

GAIA	IHRDUERAK
Harrera	<ul style="list-style-type: none"> • Tutore eta ikasleen aurkezpena. • Tutoretza programaren aurkezpena • Ikasleen datuen jazotzea (Hasierako galdetegia) eta <u>banakako elkarrizketak</u>.
Ikasturte berria	<ul style="list-style-type: none"> • Hasierako balorazioa. • Eguneroko bizitza: elkarbizitzarako arauak. • Gure gela: <ul style="list-style-type: none"> - Inbentarioa • Soziograma • Ordezkarien hautakea • Gelako bilerak.
Ikasteko ohiturak	<ul style="list-style-type: none"> • Agendaren erabilpen desberdinak • Eskolako lanen antolaketa • Etxeko lanen antolaketa • ...
Bizikidetz	<ol style="list-style-type: none"> 1 Gure arteko harremanak. 2 Aniztasuna 3 Generoa; desberdinak baina aukera berdinekin. 4 Gatazken ebazpena (Ikastaroa) 5 Sare sozialen erabilera. 6 Bulliyng.
Autoestima	<p>Adiskidetasuna Talde presioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Adimen emozionala.
Ebaluaketa inguruan	<ul style="list-style-type: none"> • Eraitzen azterketa • Hobetzeko proposamenak eta planak
Komunikazioa	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Debateak egin ikasturtean zehar, eredu desberdinak erabiliz ➤ .
Trebetasun sozialak	<ul style="list-style-type: none"> • Jokoen bitartez baloreak landu (bestearekiko errespetua, negoziatzen ikasi, denen iritziak entzun, denen partaidetza bultzatu,...)
Orientazioa	<ul style="list-style-type: none"> • DBH 2. Zikloko ezaugarriak • Ikasteko ibilbideak • Proiektu pertsonala: adibideak.

TUTORETZA PLANA

DBH 3. MAILA

1.- IKASLEEN PERFILA: 14/15 urteko gazteak

- **Taldearen garrantzia**, bere gisakoen taldea garrantzitsuena bihurtzen da. Taldea familiarekiko menpekotasunetik helduen mundurako urratsa emateko tresna bihurtzen da.
- **Nerabezaroaren ezaugarriak** egunero azaltzen dira: ezegonkortasuna, impulsibitatea, antsietatea, tentsioa harremanetan, krisi garaia (alaitasunetik tristurara une batetik bestera), ebasioen beharra, autokontrol eza, amodioa,...
- **Motibazioak** eskolatik kanpo topatzen dugu gehienetan.

2.- TUTORETZA PLANAREN HELBURUAK

- **Elkarbizitzarako hesitzea**, bakean eta behar bezala elkarrekin bizitzea posible egiten duten gizarteak onartutako portaerazko jarraibideak, jarrerak eta balioak ikasleak eskuratzea ahalbidetuz.
- Gizarteratze eta parte hartze maila altuenak eta onenak ahalbidetzen dituzten **gizarte trebetasunak** garatzea.
- Ikasle bakoitzak etorkizunera begira helburuak markatu eta finkatu, formakuntza ibilbideak ezagutzen joateko.

3.- TUTORE LANAREN ESPARRUAK

IKASLEEI DAGOZKIONAK

- Ikasle bakoitzarekin elkarriketa indibidualak finkatu ikasturtean zehar, bakoitzaren egoera hobeto ezagutzeko.
- Ikasle taldean tutoretza programa adostu ondoren , martxan jarri.

FAMILIEI DAGOZKIONAK

- 7 Talde bilerak finkatu (bat ikasturte hasieran eta beste bat bukaeran), gurasoei ikastexearen eta hezkuntza etaparen ezagutza errazteko.
 - 8 Banakako hezkuntza-prozesuari buruzko informazioa eman ondoren, lankidetzat bilatzea, elkarriketa indibidualen bidez .
- Nerabezaroa zer den eta zer suposatzen duen harremanetan ulertzeko informazioa eman.

TALDEKO IRAKASLEEI DAGOZKIONAK

Ikasleen informazio trukaketa
Komunikaziorako bideak erraztea

4.- PROGRAMA

HELBURUAK	EDUKIAK	IHARDUERAK
Harrera	Tutore eta ikasleen aurkezpena. Tutoretza programaren aurkezpena. Ikasleen datuak.	Hasierako galdetegia eta banakako elkarrizketak.
Elkarbizitza	Taldea Besteekiko harremanak Gatazkak Gizarte trebetasunak	Gelako inbentarioa Soziograma Ordezkarien hautaketa Gelako arauak Elkarbizitzarako aholkuak Genero indarkeria. Talde presioa (“Maskarak”) Debateak, tertuliak.
Ikasketa prozesuak	Ikas prozesuak Ikasketa teknikak Emaitzen azterketa	Galdetegia “Aprender a estudiar” web orria. Ebaluaketa emaitzak Hobetzeko proposamenak
Garapen pertsonala	Auto-kontzeptua Genero nortasuna Sentimenduak eta emozioak Osasuna	Ideiak eta aurreiritziak Gertaerak eta iritziak "Beldur barik" unitate didaktikoa. Heziketa sexuala ikastaroa Izenak jartzen ikasi. Anorexia, bulimia, vigorexia. Norberara bisita.
Lanbide orientazioa	Proiektu profesionala Interes profesionalak Erabakiak hartzen.	Gogoak eta balioak. Galdetegia 4. mailarako hautazko gaiak. Ibilbideak.
Ebaluazioa	Ikasturtekoa	Banaka

		Taldekoa Tutoretzakoia
--	--	---------------------------

TUTORETZA PLANA
DBH 4. MAILA

1.- IKASLEEN PERFILA

5. Lan giroa oso garrantzitsua da, akademikoko erritmoak beste pauso bat ematen du, intelkualki garapen ebolutiboa ahalbideratzen duelako (pentsamendu lógico formala).
6. Nerabezaroaren ezaugarriak eman arren, heldutasun maila nabarmentzen da.
7. Bakoitzaren proiektu pertsonala definitzen diren lehenengo urratsak eman behar dute.

2.- TUTORETZA PLANAREN HELBURUAK

Gure ikasleen ezaugarriak kontutan hartuz, beraien garapenerako hiru aspektu jorratzea bereziki espero dugu:

- **Ikasteko prozeduraren garrantzia** azpimarratzea
- **Orientazio bokazionala** dela eta, ikasle bakoitzaren formakuntza ibilbideak finkatzea:
 - Ikasleari bere buruari buruzko irudi zehatza egitea, baita bere gaitasunei eta mugei buruzkoa ere.
 - Derrigorrezko eskolatzea amaitzean, hezkuntza-sistematik eskaintzen zaizkion aukera desberdinak ezagutzea.
 - Erabakia hartzeko gaitasun eta trebetasun pertsonalak garatzea.
- **Ikas bidaia** antolatzen laguntzea.

3.- TUTORE LANAREN ESPARRUAK

IKASLEEI DAGOZKIONAK

- Ikasle bakoitzarekin elkarrizketa indibidualak finkatu ikasturtean zehar, bakoitzaren asmoak hobeto ezagutzeko, eta errealistak izaten laguntzeko.
- Ikasle taldean tutoretza programa adostu ondoren martxan jarri.

FAMILIEI DAGOZKIONAK

- **Talde bilerak** antolatu (**bi**, bat ikasturte hasieran eta bestea erdialdean), aurtengo ikasturtearen ezaugarriak aztertzeko, eta datorren urtera begira dituzten aukerak ezagutzeko.
- **Banakako elkarrizketak** (bi gutxienez, ikasle eta gurasoekin batera), ikasketak eta orientazio lanaren emaitzak emateko eta aztertzeko.

TALDEKO IRAKASLEEI DAGOZKIONAK

- Informazio trukaketa.
- Komunikaziorako bideak erraztea.
- “kontseilu orientatzailea” osatzea (2. Ebaluaketa amaitu ondoren).

4.- PROGRAMA

GAIA	IHARDUERAK	NOIZ
Harrera	Ikasturteko aurkezpena Tutoretza programaren aurkezpena...	Iraila
Gelako dinamika	Ordezkarrien hautaketa Bizikidetzarako arauak gogoraraztea	Urria
Ikasteko ohiturak	Ikasteko ohituren azterketa Ikasteko teknikak	Urria
Osasun hezkuntza	Heziketa sexualaren ikastaroa	Programan arabera
Ikas bidaia	Komisioak sortu Ekintzak finkatu ikasturtean zehar (plangintza) Antolaketa	Urria/Azaroa
Orientazio Bokazionala Autoezagupena fasea	Programaren aurkezpena Hasierako azterketa Lanbide-mailako interesak Gaitasunak Nortasuna Errendimendu akademikoa Fase honen sintesia.	Abenduan
O.B. Informazio fasea	Batxilergoak -Modalitateko ezaugarriak -Antolaketa -Unibertsitatera joateko baldintzak -Sarrera froga Heziketa zikloak -Lanbide familiak - Erdi mailako lanbide heziketako zikloak - Goi mailako lanbide heziketako zikloak - Beste aukerak. - Ibilbideak - Lanbide hastapena	Urtarrilean/ Otsaila
Lan mundua ezagutzen	Lan merkatua Lan eskaintzak	Martxoa
O.B. Erabakiak hartzen	Ikasle bakoitzaren aukerak finkatu (bi gutxienez). Irakasleen "kontseilu orientatzailea" eman.	Apirila

Ebaluaketa inguruan	Emaitzen azterketa O.B. ebaluazioa	Ebaluaketa amaieran.
----------------------------	---------------------------------------	----------------------

4.ERANSKINA

AGENDA 21

Eskolako Agenda 21 eta ikastetxearen jasangarritasun irizpideak

Lauaizeta Ikastola BHI 2014-15 ikasturteaz geroztik EA21 proiektua garatzen ari da. Lehen urtean, ikastetxearen egoera ezagutzeko diagnostiko bat egin zen, eta ondoren lehentasunak finkatu ziren. Orduz geroztik, zenbait neurri jarri dira martxan, bereziki hondakinen kudeaketan eta mugikortasunean.

Proiektua epe ertain-luzera begira garatzekoa denez, aurten **bi helburu nagusi** izango ditu:

- Eskola-komunitate osoaren partaidetza bilatzea, jasangarritasuna guztion parte hartzea behar duen helburua dela jabetzea.
- Premia handien dagoen arloetan ekintza plana martxan jartzea eta behar diren neurriak hartzea.

Hauek izango dira gure ikastetxearen **jasangarritasun irizpideak** arlo desberdinetan:

a) Erosketa berdea:

- ✓ Erosketaren bolumena ahalik eta txikiena izatea.
- ✓ Produktuak erostean jatorria eta ekoizpena jasangarria den egiaztatzea.

b) Mugikortasuna:

- ✓ Garraiobide jasangarriak lehenestea, (bizikleta, trena, autobus publikoak...) ikastetxeko eguneroko joan etorrietarako zein irteeretarako.
- ✓ Mugikortasun jasangarria ikas komunitatean sustatzea.

c) Tokien, baliabideen, hondakinen kudeaketa:

- ✓ Materialen kontsumoa murriztuko duten neurriak bultzatzea.
- ✓ Gaikako bilketa hobetzeko neurriak hartzea.
- ✓ Ikastetxean espezifikoki sortzen diren hondakinei (idatz materialei, jangelako hondakinei...) irteera jasangarria ematea. Eskolan konpostatzea.

d) Parte hartzea:

- ✓ Tutoretzetan, formakuntzetan, ekintza plan zehatzei buruz informazioa eman eta partaidetza bilatzea.
- ✓ Zenbait ekintza burutzeko taldeak sortzea.
- ✓ Ikasturtearen balorazioa eta hurrengo ikasturteetarako diagnostia egiteko galdetegiak betetzea.

Irizpide horien kontrol eta jarraipenerako ondoren aipatzen diren **adierazleak** aukeratu dira:

Zer	Noiz	Nork
a) Paperaren kontsumo, berrerabilpen eta birziklatzearen bilakaera egiaztatzea.	Ikasturtean zehar	Papera jasotzen duten ikasleek, EA21eko koordinatzaileak
b) Bizikleta eta patinak gordetzeko kaiolan erabilera egiaztatzea.	Ikasturtean zehar	EA21eko koordinatzaileak
c) Geletan, hondakinak modu egokian birziklatzen direla egiaztatzea.	Ikasturtean zehar	Tutoreek, irakasleek
d) Patioan eta ikastetxeko pasiloetan, hondakinak modu egokian birziklatzen direla egiaztatzea.	Ikasturtean zehar	Hondakinak jasotzen dituzten ikasleek, koordinatzaileak
d) Konpostatzearen ezarpena eta bilakaera egiaztatzea.	Ezarpena lehen ebaluazioan Balorazioa ikasturte amaieran	Konpostatzearen arduradunak
d)Galdetegiaren partaidetza egiaztatzea eta emaitzak aztertzea.	Ikasturte amaieran	EA21eko koordinatzaileak

5. ERANSKINA

HEZKIDETZA PLANA

Zergatik edo zertarako hezkidetza proiektu bat Lauaizetan?

Azken urte hauetan ikasleengan jarrera diskriminatzaileak ikusten ari gara, baita estereotipatuak ere, jarrera hauek gizartean gora egiten ari direla nabaria da, zergatik gure eskolan ez? Bestaldetik bullynga gure artean dago, eta gainera, teknologia berriek ez digute laguntzen, erasotua eskolatik kanpo ere erasotua izaten jarraitzen baitu, eraso 24 orduetara zabalduz. Nerabezaroan, mutilengan dagoeneko ia existitzen ez ziren jarrera matxistak, posesiboak... berriz ikusten ditugu, askotan neskek onartutakoak. Hau dena genero biolentziaren hasiera izan daiteke. Zergatik Lauaizetan ez?

Askotan amets egin genuen “eskola ez sexista” hori ez zaigu iritsi. Erakunde berak egoera diskriminatzaileak sortzen ditu, aukera ezberdinak... baina gaur egungo egoera hain da politikoki zuzena askotan zaila egiten zaigula diskriminazioa non dagoen esatea, sentitu egiten dugun arren.

Eskolak elkarbizitza plana badu ere, horrekin ez da nahikoa, bertan hezkidetza plana sartu behar da, biak elkartu eta bat izan behar dute. Eskola inklusiboaz hitz egiten nahi badugu hezkidetza plana ezinbestekoa da, genero ezberdintasunak egonda ezin da inklusioaz hitz egin.. Pertsonak garelako genero berdintasunean hezi egin behar ditugu ikasleak.

Lauaizetan, ofizialki, orain arte ezer gutxi egin dugu arlo honetan, egindako guztia irakasle bakoitzaren eskuetan egon da, borondatean, martxoak 8 dataren inguruan, tutoretzetan... Hezkidetza ezin da zeharkako gai bat bezala planteatu, urtean bi aldiz jorratuko duguna. Eskola batek hezkidetza bere saio guztietan presente izan behar du, egunerokotasunean, egiten ditugun ariketetan, erabiltzen dugun hizkeran, izaten ditugun elkarrizketetan, erabiltzen ditun materialetan, irteeretan...

Aipatutako guztia kontutan hartuta, Lauaizetan, hezkidetza proiektua egiten hasteko asmoa dugu, nahiz eta proiektu horretan ofizialki sartuak ez izan.

Proiektuaren aurkezpenari eta sentsibilizazioari dedikatuko dizkiegu hasierako saioak (bai irakasle, baita ikasleekin ere). Gaiaren garrantziaz denok jabetu gaitezen. Hurrengo urrats batean diagnostiko bat egin beharko dugu. Egoera nola dagoen aztertzeko eta lanean nondik hasi hobeto jakiteko. Proiektuari dagokiona ikasturte honetan honekin nahikoa izango dugula uste dugu.

Bestaldetik, azaroak 25 eta martxoak 8 egunak modu ofizial batean ospatuko ditugu, eskola osoa inplikatur. Honetarako ikasleen borondatezko laguntza eskatzeaz gain orientazio mintegia inplikaturko dugu.

Proiektu hau aurrera eraman ahal izateko eskolak bi arduradun ditu Nerea Frias, ikasketa burua, eta Matti Navas, natura zientzietako irakaslea. Hauek hezkidetza batzordea osatzen dute. Hurrengo urtean batzordea nola handitu eta nola txertatu eskolako organigraman aztertu beharko dugu.

6. ERANSKINA

PROIEKTU EUROPEOARRAK

ERASMUS +

Lauaizeta Ikastola BHik Erasmus + programa europearraren barruan, proiektu bat aurkeztu eta beka bat lortu du.

Proiektuaren izenburua hau da:

“Eleaniztasuna bultzatzea da helburua, iharduera motibatzaileak erabilia, atzerriko hizkuntzen erabilera normalizatzeko.”

Helburuak:

- Atzerriko hizkuntzen erabilera indartzea.
- Ekoizpena bultzatzea.
- Ikasleak motibatzea.

Ekintzak:

- Ikasketa kooperatiboa.
- Elkartrukea (frantseseko ikasleentzat)
- Etwinning proiektuak
- Zenbait ekintza (arlotan desberdinetan) ingelesez.

Honetaz gain, ikastetxeak dirulaguntza jaso du 2 irakasle ondorengo ikastaroan parte hartzeko:

[Teaching English – Motivating Learners and Preparing for CLIL](#)

ETWINNING PROIEKTUAK (2016-17)

PROIEKTUEN DESKRIBAPENA

Momentuz 4 proiektutan sarturik gaude eta gehiagotan parte hartzea da gure asmoa.

Egungo proiektuak hauek dira: “What makes you?”, “E-twinning all year round”, “Mon collègue est super!” eta “Mi mundo”.

Proiektu hauen helburu nagusia gure ingurua deskribatzea, herrialde desberdinetako estereotipoak aztertzea eta datu objetiboekin konparatzea da. Beste gauza batzuen artean, gure ikastetxea, plater tipikoak, herri kirolak, ospakizunak eta eskolaz kanpoko ekintzak aurkeztuko ditugu. Gai guztiak partaideen artean adostu eta eTwinning plataformara igoko ditugu.

HELBURUAK

- ikasleak motibatzea,
- bizi garen munduaren ezagutza hobetzea,
- gure kultura (edo besteena) ezagutzea dibertigarria eta aberasgarria dela ikasleei helaraztea,
- herrialde desberdinetako mito/estereotipoak aztertzea,
- atzerriko hizkuntza komunikatzeko tresna bezala erabiltzea, gramatikari ordez komunikazioari garrantzia emanez,
- ikasten ikastea (IK/KI),
- IKTen erabilera indartzea.

PARTAIDEAK

Polonia, Mazedonia, Letonia, Norbegoia, Frantzia, Bulgaria, Turkia, Italia, Errumania, Kroazia, Belgika eta Euskal Herria.

7. ERANSKINA SARE HEZKUNTZA

Sare Hezkuntza 2016-18

Azken hamarkadan baliabide digitalen garapenak pertsonen formazioan eraldaketa sakona eragin du. Ikt-ak ezinbesteko tresna bihurtu dira ikasle, irakasle eta gurasoen formazio iraunkorrean.

Hori horrela izanik, aurreko ikasturtean **Ikt Heldutasun Eredua Proiektuan maila aurreratua** lortu ondoren, oraingoan baliabide digitalak sortzea eta ahalik eta horien gehienezko aprobetxamendua lortzea da Lauaizeta Ikastola BHI-n ezarri nahi dugun helburua; eta bide horretan zuzendu nahi dugu Sare Hezkuntza proiektu honen xede nagusia. Horretarako, ikasturte honetan mailaz maila ikasleriaren gaitasun digitalaren mapa zehazten joan beharko dugu.

Ukaezina den errealitate berri honek, heziketa prozesuaren egokitzapena eskatzen duela, eta nola ez, prozesu honetan parte hartzen dugunon eginkizun eta egiteko moduaren egokitzapena ere, horrek dakarren aldaketa eta birmoladaketa guztiarekin. Tabletak, mugikorrak, chromebookak..., geletan baliabide digitalen erabilerari bultzada eman nahi diogu eta benetako tokia egin nahi diogu irakasteko eta ikasteko prozesuan.

Ezagutza gizartearen eszenatoki berri honetan, parte hartzaile guztiek ulertu behar dute ikt-ak oinarritzko tresna bihurtu direla ikasleen heziketa prozesuan eta horrek ezinbestean metodologia aldaketa eskatzen duela. Ez dago prozesu horretatik at geratzerik, denok baikara eraldaketa sakon honen parte aktiboa. Metodologia aldaketarako behar den formazioa eskaintzea izango da ere proiektu honen helburuetako bat.

Laburbilduz, proiektu honen erronka nagusiak ondoko hauek izango dira: material didaktikoa sortu, metodologia berri eta guztia gure komunitatearekin partekatu.

8. ERANSKINA

HIZKUNTZA PROIEKTUA

GARATZEKO SEGIDA

Diagnosia (auto-ebaluazioa, ebaluazio formatiboa, diagnostiko- ebaluazioa...)

Diseinua:

Hezkuntza Komunitatearen ideiak eta egitasmoak.

Proposamen Orokorra (Zuzendaritza Batzordeak, Hizkuntza Proiektuaren Batzordeak edo Hizkuntz

Proiektuaren arduradunak bultzatuta)

Negoiazioa ikastetxeko hainbat funtzionamendu organotan (Eskola Kontseilua, klaustroa, mintegiak ...)

Hizkuntz proiektua idaztea

Hizkuntz Proiektuaren ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak

HIZKUNTZA PROIEKTUAREN OSAGIAK

- Ikastetxearen egoeraren txostena: ikasleen hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren maila eta ikastetxearen testuinguru soziolinguistikoa.
- Helburuak
- ikasgelan, ikastetxean, inguruan zein familietan jarduteko proposamenak
- Pertsona inplikatuak, baliabideak eta denboralizazioa
- Ebaluazio irizpideak, baliabideak eta adierazleak
- Prestakuntza eta formakuntza proposamenak
- Hizkuntz Proiektuaren garapena: txostena
- Hizkuntz Proiektuaren autoebaluazioa: txostena

IDAZTEKO AURKIBIDEA

1. PROIEKTUAREN ARDURA HARTUKO DUEN LAN-TALDEA. Kideak eta arduraduna

2. DIAGNOSIA

- **IKASTETXEAREN DESKRIBAPENA.**
- **IKASTETXEAK HOBETU NAHI DUEN EREMUAREN DEFINIZIOA.** (Ikastetxearen abiapuntua zein den zehaztu, ikastetxeak dagoeneko duen *Hizkuntz Proiektu ezkutua* nolabait esateko, azaleratu bai eta ikastetxeak duen aldatzeko gaitasuna balioetsi; ikastetxeak dituen aukerak eta baliabideak eta lortu nahi dituen helburuak.

3. PROIEKTUAREN HELBURUAK: hizkuntzen garapen kurrikulararen bidez zehaztuko dira ikastetxeak lortu nahi dituen helburuak, halaber, zehaztu egin behar dira kontuan hartuko diren metodologiari lotutako ikas-irakas praktikak.

4. GARATU ETA GAUZATUKO DIREN EKINTZAK ETA JARDUERAK: ekintzak eta jarduerak antolakuntzari nahiz curriculum eremuari (metodologia eta didaktika) lotuak izan daitezke. Halaber, aniztasuna eta ikasle etorri berrien edo etorkinen eskolatzeari lotutako jarduerak eta ekintzak bilduko dira. **Denboralizazioa** zehaztu behar da, kronograma eginez.

5. AURREKONTUA ETA BALIABIDEAK (ikastetxeak dituenak eta beharko lituzkeenak). Baliabide gisa honakoak aipa daitezke: IKTen erabilera, portfolioa, europar programak: eskola elkarteak, hizkuntza laguntzaileak, Comenius laguntzaileak, mugikortasuna, ikasle trukeak, hizkuntzen autoikaskuntza gelak...).

6. JARRAIPEN SISTEMA ETA BARNEKO EBALUAZIOA: Hizkuntz Proiektuaren jarraipenak aurreikusi diren ekintzen eta jardueran gaineko kontrola ziurtatu behar du, eta horrekin batera baliabideen kudeaketa ere bai. Horretarako, akta liburua sortu beharko litzateke.

7. KRONOGRAMA: proiektuaren fase guztiak zehaztu egin behar dira eskola egutegiaren arabera.

9. ERANSKINA EKONOMIA KUDEAKETARAKO PLANA

SARRERAK		GASTUAK	
1.- AURREKO EKITALDIKO GERAKINA	18.487,23	I KAPITULO	4.000,00
2.- HEZKUNTZA SAILETIK	116.016,95	16.- GASTU SOZIALAK	4.000,00
A.- FUNTZIONAMENDU-GASTUAK	63.616,91	162.- BESTELAKO GASTU SOZIALAK	4.000,00
B.- EKIPAMENDUA	6.528,00	II.KAP.: FUNTZIONAMENDU GASTUAK	215.421,86
C.- OBRA TXIKIAK		21.- ALOKAIRU ETA KANONAK	
D.- KUDEAKETA-ZUZENEKO JANTOKIAK	15.033,04	213.- INSTALAZIO TEKNIKO, MAKINERIA ETA TRESNERIA	
F.- TESTULIBURUAKS	20.889,00	214.- ALTZARIA	
T.- HEZKUNTZA-ESPERIENTZIA ETA BESTE JARDUERAK	9.950,00	215.- INFORMAZIO PROZESUETAKO EKIPOAK	
3.- BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO ETA ERAKUNDE BATZUK	4.041,77	218.- KANONAK	
A.- EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN BESTE SAIL BATZUK	815,20	22.- KONPONKETA ETA ZAINKETAK	28.300,00
B.- EAE-KO ERAKUNDE AUTONOMO ADMINISTRATIBOAK		222.- ERAIKUNTZAK	12.000,00
C.- EAE-KO ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAK	384,97	223.- INSTALAZIO TEKNIKO, MAKINERIA ETA TRESNERIA	11.700,00
D.- EAE-KO SOZIJETATE PUBLIKOAK		224.- ALTZARIA	1.000,00
F.- EAE-KO FORU ALDUNDIAK		225.- INFORMAZIO PROZESUETAKO EKIPOAK	3.600,00
K.- EAE-KO UDALERRIAK TOKI-ERAKUNDEAK		226.- GARRAIO-ELEMENTUAK	
M.- EUSKAL ALOR PUBLIKOKO BESTELAKO ERAKUNDEAK		23.- KANPOKO BETE ZERBITZU BATZUK	186.953,56
N.- IRABAZI GABEKO ERAKUNDEAK, FINANTZAKETA PUBLIKO		232.- PROFESIONAL INDEPENDIENTEEN ZERBITZUAK	
P.- ESTATUKO ALOR PUBLIKOA	2.841,60	233.- GARRAIOAK	
T.- ATZERRIKO ALOR PUBLIKOA		235.- BANKU-ZERBITZUAK ETA ANTZEKOAK	50,00
4.- BESTE JATORRI BATZUETAKO DIRU SARRERAK	155.296,00	236.- KOMUNIKAZIO INSTITUZIONALA, PUBLIZITATEA ETA HARRE	900,00
A.- ZERBITZUAK EMATEAGATIKO DIRU-SARRERAK	63.360,00	237.- HORNIDURAK	51.500,00
B.- KUDEAKETA ZUZENEKO JANTOKIETAKO KUOTAK	84.705,00	238.- BESTELAKO KANPOKO ZERBITZUAK	134.503,56
C.- LEGATUAK, DOHAINZAK ETA BESTE EMARI BATZUK		28.- BESTE HAINBAT GASTU	168,30
D.- ONDASUNAK SALDUZ LORTUTAKO DIRU-SARRERAK		281.- ZERGAK	168,30
E.- BANKU-INTERESAK		282.- ZENBAIT GASTU	
F.- AURREKO EKITALDI ORDAINKETA ITZULKETA		V.KAP.: INBERTSIOAK	15.500,00
H.- TESTULIBURUAK ERABILTZEAGATIKO EKARPENA	7.231,00	62.- BESTELAKO INBERTSIOAK	15.500,00
T.- BESTE DIRU- SARRERA BATZUK		623.- BESTELAKO INSTALAZIO, INSTALAZIO TEKNIKO, MAKINERIA	6.500,00
		624.- ALTZARIA	4.000,00
		625.- INFORMAZIO PROZESUETARAKO EKIPOAK	5.000,00
		629.- BESTELAKO IBILGETU MATERIALA	
SARRERA-AURREKONTUA GUZTIRA	293.841,95	GASTU-AURREKONTUA GUZTIRA	234.921,86
.....(e)an egindako bileran ORDEZKARITZA ORGANO GORENAK ontzat emana.			
O.O.G.-KO PRESIDENTEA / IKASTETXEKO ZUZENDARIA		ADMINISTRATZAILEA / IDAZKARIA	



ESKOLA KONTSEILUA 2016-11-9

Bilduak:

GURASOAK: Julia Moral, Edorta Bergua, Gema Garitaonandia , Mertxe Iñigo

IKASLEAK:

IRAKASLEAK: Agus Iridoi, Gurutz Sanzberro, , Txetxo Lopez, Alfontso Lopez, Ainhara Obeso, Uxo Larrañaga., Xabier Baztarrika, Uxo Larrañaga,

EZ DOZENTEAK Fede Alonso Arias

ZUZENDARITZAKOAK: M^a Eugenia Lozano Izquierdo, Nerea Frías Aranbarri, Idoya Bernabeu Larre

Gai ordena:

1-2015-2016 Ikasturteko Memoria eta 2016-2017 Ikasturteko planaren oneritzia.

OOGak oneritzia ematen du.

Zuzendaria

M^aEugenia Lozano

Idazkaria

Idoya Bernabeu